



Oi! estiloa jorratzen du Hexen taldeak, eta boskotearen zenbait kide eskualdekoak dira. ▶15



Ziortza Isasik eta Sandra Alonsok Espainiako Pista Txirrindularitza Txapelketa irabazi dute. ▶19


hiruka

Uribe Kostako astekaria



107. zenbakia
2017ko
urriaren 19tik
urriaren 25era arte

Tosu, hustuta



Aparkalekua egiteko obrak hasi dituzte landan, erresistentzia-kanpalekua utzarazi ostean. Mobilizazioak iragarri dituzte. ▶3



«Euskarazko komikigintzak etorkizuna du»

Mikel Begoña Garaizar sopoloztarra da *Komikia: el cómic vasco 1975-2017* erakusketaren komisarioetako bat; Bilboko foru-liburutegian ikus daiteke, urriaren 28ra arte, astelehenetik zapatara.

Bizkaiko Foru Aldundiak *Komikia: el cómic vasco 1975-2017* erakusketazabalik izango du urriaren 28ra arte, Bilboko foru-liburutegiko areto nagusian. Esposizioaren ko-

misarioetako bat da Mikel Begoña Garaizar sopoloztarra; berak azaldu duenez, Euskal Herriko komikigintzak azkeneko 42 urteetan izan duen bilakaera ikus daiteke. ▶16-17

SAKONEAN ERANDIO

Ategorri, zelai zaharkitua

Erandio futbol-taldeak gaur egungo Ategorri futbol-zelaiaren 50. urtemuga ospatu du. Zelaia zaharkituta dago, eta mantenua gastu latza da klubarentzat.

Klubak eta Udalak konponbideren bat topatu gura dute; baina, biek aitortu dute edozein irtenbide karua izango dela. Udalekotzea edo belar artifiziala ipintzea pentsatzen dabil kirol-taldea. Bitartean, Arteaga futbol-zelai publiko-ara autobusez bidaiatu eta bertan entrenatzen eta lehiatzen dira Erandio Kirol Elkartearen 15 talde. ▶22-23

Mintzodromoa egingo dute urriaren 26an, Sopelako udaletxeko plazan; Uribe Kostako Euskara Zerbitzuak antolatu du. ▶7

Barrika alderik alde zeharkatzen duen BI-2122 errepidearen «arriskuak» salatu ditu udalerriko EH Bildu taldeak. ▶9

Iazko Bilbao Mendi Film jaialdira aurkeztu ziren lanen arteko onenatariko batzuk proiektatuko dituzte Sopelan. ▶12

Galeako olatu handien surf-txapelketako itxarote-epea zabaldu dute; Olatu Handien Zirkuitutik kanpo. ▶18

Zirkulazio-aldaketa nahikotxo daude Algortako erdigunean

Ibilgailuen zirkulazioa murriztu dute Algortako etorbidean, Telletxe eta Amezti kaleen artean, 08:00etatik 18:00etara. Hartutako neurria indarrean egongo da obrek iraungo duten bitartean, inguru hori berrurbanizatzeko lehenengo fasea amaitu artean. Halere, garajeetara edonoiz sartu ahal izango da, baita auzotarrak ere.

Algortako erdigunea berrurbanizatzeko proiektuaren lehenengo fasea gauzatzen dihardute, Telletxe eta Torrene kaleen arteko zatian. Hori dela eta, ibilgailuen zirkulazioa murriztu egin dute Algortako etorbidean, Telletxe eta Amezti kaleen artean. Lanak amaitu arte egongo dira murrizketak, Udalak jakinarazi duenez. Hala, 08:00etatik 18:00ak bitartean itxita dago tarte hori, zirkulazioa etenda; salbu eskola-autobusentzat (10:00etatik 16:00ak arte bidea itxita izango dute) eta kamioi handientzat (zama-lanak); sarbideak libre egongo dira edonoiz, bai auzotarrentzat, baita garajeetara sartzeko ere. Horrez gainera, Algortako erdigunetik dabiltzan Bizkaibusen autobus-lineatan eragina du neurri horrek; Aldundiak laster iragarriko die erabiltzaileei lanongatik autobusak nondik desbideratuko dituen, eta non ipiniko dituen behin-behineko geraleku berriak. Modu berean, Algortako Azokako salgaien zamalanetan ere eragina izango dute obra horiek. Aipatutako denboraldian eta ordu-tegian, furgonetek eta kamioi txikiek merkatura iristeko Algorta etorbideetik (gasolindegi zaharraren parean) Satis-tegi kalea hartu beharko dute; ondoren, Torrene eta Amezti kaleen artean dagoen zamalanerako gunean sartzeko edo Torrene kalean sartzeko, «justifikatuta badago». Kamioi handiak etorbideetik bertatik sartuko dira, aipatutako ordutegiaren barruan. Azoka ondoan sarrera duen garajeko erabiltzaileak Torrenetik bertatik sartu edo irten ahal izango dira, edonoiz.

Udalak plano batzuk banatu ditu inguruko denda eta tabernen artean, Algorta etorbidean egingo diren lanen eta horiek izango duten eraginaren berri emateko, zehatz-mehatz.

Taxi-geraleku berria, Areetan

Bestalde, taxien geraleku berria ipini du Getxoko Udalak Areetako Amaia kaleko 29. zenbakian, ambulatorioaren ondoan. Hala, Gobelaurre kalean zegoena kendu egingo dute, Getxoko Taxilarien Elkarteak horixe eskatu ondoren, Udalak jakinarazi duenez. ◀



Getxo

Erresistentzian jarraituko dute

Sei urteko kanpaldia utzarazi zien Ertzaintzak Tosukoei, martitzenean; mobilizazioak egongo dira.

Joan den martitzenean hustarazi zuen Ertzaintzak Getxoko Tosu landa, hilaren 17an. Tosu Betirako plataformako kideek jakinarazi dutenez, «kaleratzea lortu arren, erresistentziarekin aurrera jarraituko dugu parkinga geldiarazi arte». Hala, hainbat mobilizazio egiten dabilta egunotan, Algortan; hurrengo zapatuan izango da, hilaren 21ean, 12:30ean Algortako Telletxe plazatik abiatuta. Ostean, kontzertua egingo dute.

Martitzenean, goizeko 08:00etan hurreratu zen Ertzaintza Getxoko Tosu landara, ortu okupatuan kanpatuta zeuden ekintzaileak kanporatu eta



Landa hustu heinean, aparkalekua egiteko lanak abiarazi zituen enpresak.

Metro Bilbaoren aparkalekuaren lanak ahalbidetzeko. Ekologistek alde egiteari uko egin zioten, eta hiru lagun kateatu egin ziren bertan; horietako bi porlanez betetako bidoi banara. Horiek denak askatzeko, suhiltzaileek

bertaratu behar izan zuten. Ostera, egurrez egindako lau metroko dorrean kateatuta zegoen ekintzailea askatu zuten arren, bertatik jaisteari uko egin zion berak. Bitartean, aparkalekua egiteko obrei ekin zioten Geocisa enpresa-

ko beharginek. Etxola eraistea galaz guran, landara hurreratutako 45 lagun inguruk herri-harresia egin zuten, azpiegituraren inguruan. Ertzaintza gogor oldartu zen horien kontra, gunetik ateratzeko, banan-banan; 25 minutuan denak kanporatu zituzten. Jarraian, azken urteotan Tosu landako elkargunea izan den egurrezko etxola bota zuen hondeamakina batek.

Getxo eta Berango arteko Ibarbengoako metro-geltokia eraikitzen 2011n amaitu zuten; hala ere, oraindino ez dute zabaldu. Horretarako, Tosu landan hiru solairuko txandakako aparkaleku bat egitea beharrezkoa dela azaldu zuten orduan proiektuko arduradunek. Hala ere, horren aurka egiteko, erresistentzia-kanpaldia abiatu zuten Tosu Betirako plataformaren kideek orain dela sei urte. ◀

info+: hiruka.eus/getxo

Argia Ereiten

Getxoko Euskara Saria

VIII. edizioa

Hautagaitzak

aurkezteko epea zabalik

Zure inguruan nor da euskararen alde, egunero, zerbait egiten duena?

(Zure inguruan = zure lagun-taldean, zure kirol- edo kultur-elkartean, familian...)

Orain arteko saridun guztiak



Bidali hautagaitzak
urriaren 31a baino lehen
euskara@getxo.eus
Informazioa:
www.getxo.eus/euskara



Getxo
hiri eraza

Getxo

Pintxotan murgiltzeko bideak

Gutizia txikiez gozatzeko aukera bi egongo dira Getxon: batetik, Getxo Dastatu Pintxo Ibilbidea, urriaren akabuan; bestetik, GetxOnegin! lehiaketa, azaroan.



Askotariko pintxoak dastatu ahal izango dira.

Urriaren 19tik 22ra eta 26tik 29ra bitartean, Getxoko ostalariek Euskolabel kalitateko produktuak egindako pintxoak eskainiko dituzte, getxoztar eta bisitari denen gozamenerako. Getxo Dastatu Pintxo Ibilbidearen zarpigarren edizio horrek ibilbide bi izango ditu: Neguri-Algorta eta Areta-Romo. Horietan denetan parte hartzen duten establezimenduek pintxoak 1,5 euroan salduko dituzte. Gainera, horiek dastatzera animatzen direnek sariketa batean parte hartzeko aukera izango dute. Horretarako, proposatutako pintxo-ibilbideak egin beharko dira, «eta ostalaritzako establezimenduek proposatzen dituzten gutizia txikiez gozatu», antolatzaileen arabera. Hala, jaten den pintxo bakoitzeko, parte hartzen duen enpresak pintxo zigitatuko du bezeroaren txartelean. Zenbat eta pintxo gehiago

zigitatuta eduki, orduan eta aukera handiagoa egongo da sariak irabazteko. Txartelak gutun-ontzietan sartzen dira, proiektuari lotutako ostalaritza establezimenduetako bakoitzean daudenak. Sariak honako hauek izango dira: egonaldi bikoitza gosariarekin eta termen zirkuituarekin, lagun birrentzako menua eta termen zirkuitu ludikoak La Hermida hotel-bainuetxean, eta Kutxabanken 3 opari-txartel, 100 eurokoa bakoitza, proiektuan parte hartzen duten establezimenduetan trukatzeko.

GetxOnegin pintxo-lehiaketa

Ostera, azaroaren 18an, 19an, 25ean eta 26an VIII. GetxOnegin! pintxo-lehiaketa egingo dute, goizetan eta eguerditan. Parte hartuko duten 60 ostalaritza-lekuek pintxo bereziak eskainiko dituzte, 1 euroan, euskararen erabilera bultzatu guran. ◀

Zurrumurruren kontrako doako prestakuntza, administrazio publikoko beharginentzat

Getxoko administrazio publikoetako langileentzat, Zurrumurruren kontrako Heziketarako izena emateko epea zabaldu du Udalak, hilaren akabura arte. Egitasmo horren helburua da Getxon arlo horretan aritzen diren langileek osatutako lan-taldea eratzea, eztabaida aberasgarria sortze aldera. Doako heziketa hiru orduko lau saiok osatuko dute, azaroko astelehenean, Getxo Elkartearen. Azaroaren 6ko gaia *Inmigración, del estereotipo a la xenofobia* izango da, Xabier Aierdiren eskutik; hilaren 11koa *Teorías modernas de la raza y*

rumores, estereotipos negativos y prejuicios más extendidos, Andrea Ruiz Balzola eta Miguel Angel Navarrogaz; azaroaren 20koa *Diálogos transformadores, convertir las amenazas en oportunidades* Jordi Granégaz, eta azaroaren 27koa *Estrategia antiRumores y perspectiva de género*, Maya Aranegaz. Prestakuntzarako izen-ematea posta elektronikoen bidez egin beharko dute interesa duten pertsonak. Bidalitako mezuan, datuak eta lanpostua jakinarazi beharko da. ◀

info+: www.getxo.eus/antirumores
izen-ematea: antirumores@getxo.eus

ArgIHizkiak ikusteko aukera egongo da Algortako Azokan

ArgIHizkiak argazkietan oinarritutako testu laburren VI. lehiaketaren erakusketa ikusteko aukera egongo da urriaren 20tik 27ra, Algortako Azokan (Torrene kalea, 4 zenbakia). Bertan, Egizu Getxo Euskaldun eta HIRUKA komunikazio-taldeak antolatutako lehiaketan parte hartu duten Uribe Kostako 10 argazkilariren lanak eta horietan oinarritutako testuen irabazleak ikusteko aukera egongo da. Horretarako, gura duenak aste-egunetan bertara hurreratzeko aukera izango du, 08:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; zapatuetan ere ikusteko aukera egongo da, goizez, 08:00etatik 14:00etara. ◀

Erabakitze eskubidea berbabide izango dute eguenean

Datorren azaroaren 5ean egingo dute erabakitzearen aldeko herri-galdeketa Getxon. Horri begira dago Getxoko Gure Esku Dago taldea; hala, herritarren kontsulta horretan parte hartzeko arrazoiaren nondik norakoen inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko mahai-ingurua egingo dute eguenean, hilaren 19an. Algortako Fadura kiroldegiko areto nagusian ipini dute hitzordua, 19:00etan. Berbalde horretan parte hartuko dute Elixabete Piñol Olaeta abokatuak, Helena Franco Ibarzabal Ekonomia eta Zientzia enpresarialetan doktoreak eta Neskutz Rodríguez Ormazabal Publizitate eta Harreman publikoan lizentziadunak. ◀

Zarama batzeko atez ateko sistema Negurin, baztertuta

Negurin eta Zugatzarten zarama batzeko atez ateko sistema ezartzea baztertu du Udalak, hasieran hala aurreikusita zegoen arren. Izan ere, inguru horietako auzokideen gehien-goia sistema horren kontra agertu da, aurreko urtean egindako inkesta baten arabera. Joan den urriaren 4an, horren inguruko bozketa egin zuten Hondakinen Foroan, eta atez atekoa ezartzearen kontrako iritzia nagusitu

ziren horretan. Hala ere, Getxoko EH Bilduk gogorarazi duenez, foro horrek «ez dauka erabakitze eskumenik» eta bilketa sistema hori ez ezartzearen erabakia Udalarena izan dela argitu gura izan du. Horren aurrean, koalizio abertzaleak azaldu du atez atekoa «eraginkortasun handiena eta ikuspegi sostengarritik emaitza onenak erdiesten dituen» sistema dela, eta horren alde egingo dutela «beti». ◀

San Nikolas
IKASTOLA

San Nikolaren denok gara gu!!!

Hezkuntza integrala **Demokratikoa**
Euskalduna **Autonomia**
Plurala **Hezkuntza eta kudeaketa ereduak**

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta - Getxo
Tel: 944 305 478 • ikastola@sanikolas.com • www.sanikolas.eus

Erudio

Merkataritza bultzatu guran, plan bat abiaraziko du Udalak

Udalerriko merkataritzaren egoera hobetu guran, Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia prestatzen ari da Udala. Merkataritza-ikerketak bat abiatuko dute, sektorearen diagnosia egin ahal izateko, eta hainbat inkesta egiten ari dira zeregin horretarako. Era berean, plan berezia osatzeko, Udalak prozesu parte-hartzailea abiaraziko du hilabeteotan. Ondoren, lortutako emaitza guztiakaz bide-orri bat osatuko dute, udalerriko merkataritzari bultzada emateko helburuagaz. Udalerriko merkatarien elkarteek, oster, azken urteotan hainbat inizatiba garatu dituzte helburu horregaz. ◀

OHZren gaineko udal-tasa jaitsiko du Udalak, 2018an

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) arautzen duen zerga-ordenantza aldatu du Erandioko Udalak. Hala, udalerriko lokal komertzialek eta industria txikiek % 6 gutxiago ordaindu beharko dute, aurreko ekitaldiagaz alderatuta. Neurri horregaz, sektorea «lagundu» gura du Udalak. Era berean, etxebizitzek % 2ko murrizpena izango dute baita ere. Aldaketa horiek Gobernu-taldearen (EAJ eta PSE-EE) babesa izan zuten; talderik gabeko zinegotzia abstenitu egin zen bozketan eta EH Bilduk, PPK eta Ganemosek kontra egin zuten. Hala, industria- eta komertzio-negozioren indize orokorra % 0,7206tik % 0,6774ra eta % 0,2557tik % 0,506ra pasako da, hurrenez hurren. ◀



Adinekoen Ekimenak lehiaketa iaz ere egin zuten Erandion. © ERANDIOKO UDALA

Adinekoek proiektu sozialik onena bilatu gura dute, bigarrenenez

Adinekoen Ekimenak lehiaketan parte hartu duten proiektu denak aitortuko dituzte eta irabazlea zein den jakinaraziko dute azaroaren 3an, Astrabudian.

Udalerria hobetu guran, 60 urtetik gorako 40 auzokide baino gehiago parte hartzen dabilta egunotan Adinekoen Ekimenak lehiaketan. Udalak antolatutako lehiaketaren helburua da zahartze aktiboa bultzatzea, eta parte-hartzaileek hilaren 15era arte aurkeztu ahal izan dituzte euren proiektuak; sei proiektu osatu dituzte, gutxienez. Aurkeztutako proposamen denak aztertu ostean, horietako batek irabaziko du lehiaketaren bigarren edizioa; irabazleak 700 euroko saria jasoko du. Hori zein izango den jakinarazteko gala

egingo dute datorren azaroaren 3an, barikuan, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean, 18:30ean. Bertan, parte-hartzaile denen lana aitortuko dute eta hiru finalistak aurkeztuko dituzte; ostean, irabazleari saria emango diote. Ekitaldiari sartzeari doakoa izango da, leku denak bete arte.

Udalak eta Gaurko Nagusiak Fundazioak antolatutako ekimena da Erandioko Adinekoen Ekimenak lehiaketa. 2012an sinatutako lankidetzaren ondorioa da, eta udalerriko nagusiei ahotsa eta errekonozimendua emateko helburua du. ◀

Ekipamendu berriak, Alzagako gimnasioan

Gimnasio berria estreinatuta zuten joan den hilaren 9an Alzagako kiroldegiak. Instalazio berriak azken belaunaldiko makinak ditu eta zabala eta argia da. Azpiegitura 200 metro koadroko solairu bitan banatuta dago, eta kirol-eremu hori egokitzeko aurrekontua 100.000 euro baino handiagoa izan da. Berrikuntzarik handiena bigarren solairuan dago. Orain dela gutxira arte eremu hori ez zen erabiltzen, eta, orain, egokitu egin dute kardiobaskularra lantzeko. Makineria dena alokairuan dago, eta 60.000 euroko kostua izango du urtean. Erabiltzaileek asko eskertu dute makina horiek denak berritzea, lehen-



goak nahiko zaharkituta zeudelako, askoren iritziz. Gainera, gimnasioak interneteko sarbidea eta telebista ere badauzka. Modu berean, mugikortasun urria dutenentzako makina bi ere ipini dituzte bertan. ◀

Ur-sarea berritzeko beharrak egingo dituzte, Lutxanan

Joan den hilabetearen akabuan bigarren mailako ur-sarea berritzeko lanak abiarazi zituen Lutxanan Erandioko Udalak. Hala, Bilboko Ur Partzuergoagaz batera sinatutako hitzarmena beteko du Udalak, kaltetutako edo aski zaharkitutako azpiegiturak berritzeko asmoz. Lanok 337.000 euroko aurrekontua dute.

Obra horien helburuak bi dira: batetik, ur-sarea berritzea; eta, bestetik, gaur egun ez dagoen edo kaltetuta dagoen 800 metroko luzerako espaloizatia eraikitzea. Ondoren, garraio publikoaren geralekua izango den markesina bat jarriko dute espaloi horretan bertan, Udalak jakinarazi duen arabera. ◀



Potxingoak kaleetan

ANA TERESA ESCUDERO BIZKARGUENAGA
Kazetaria«Jai egunean jai egingo dozu»
dio aginduak

Holantxe inoan Jaungoikoak emondako 3. aginduak. Duda barik sasoi baten kristautasunean hezi gintuen umeok hobe ezagutzen gendun agindua.

Gustuko izan doguz egutegiko kasilla gorriak beti, baina kristautasunaren aurrean matxinatu garan moduan, kasilla gorriekiko matxinada be bidean dago. Inposatutako zenbaki gorriei matxinada!!

Urriaren 12an, Hispanitatearen egunean, Erandioko Alzaga ikastola zabalik egon zan. Aurreko ikasturtean ekin eutsen ideari eskolako hainbat langilek; aurten be errepikatu dabe ekimena. Hezkuntza-sistema propioa aldarrikatzeko urratsetariko bat. Deialdirako, esaldi biribil hau: «Txikitasunean garaipenak eginez, handitasuna aldatzea lortuko dogu». Eskola publikoko irakasleen inplikazioa zalantzan jartzen dabenez zako zantz! galanta.

Familiontzat zan gonbidapena eta hurbildu ginan, kopuru haundiegirik ez, baina ulertzeko da, kasilla gorri horren zain egoten gara eta nekeak ez dau erreboluzio haundiegirik bultzatzen. Tailerrak, kirola, musika... eta eskola gehienetan bezala »pentsatzeko-izkina», bertan galdera hau: Zein da zure ametssetako Alzaga ikastola?

Gure ametssetako ikastola ez dago orain 50 urte Erandioko hainbat familiek euki eben ametsarengandik urrunegi, herrian bertan euskaraz kalitatezko hezkuntza eskaintzea zan euren proiektua. Oinarrian ez dago al daketa haundirik, eboluzinoa bai aldiz. Urteakaz ikasi eta gureganatu doguzan hainbat berba eta ideia gehitu doguz: hezkidetz, bardintasuna, integrazioa.

Alzaga aitatu dogun hori guztia izan behar da, baina batez be euskalduna izan behar da, eta gorriak gora eta gorriak behera, adi, 50 urte beranduago euskararen semaforo gorria piztu da eta! ◀

Leioa

Etxeko lanakaz lagunduz

Gizarte-hezkuntzako Esku-hartze Taldea

boluntario bila dabil, 5 eta 14 urte arteko neska-mutilei laguntza eskaintzeko.

Leioako Gizarte-hezkuntzako Esku-hartze Talderako (GET) borondatezko langileak biltzeko deialdia zabalik dauka Udalak; astean ordu bi libre izatea baino ez da beharrezkoa, agintari leioaztarrek azpimarratu dutenez. Egitasmo horretan, 5 eta 14 urte arteko neska-mutilakaz lan egiten dute: eskola-kontuetan laguntza ematen diete; berbarako etxerako lanak egiten, edo ikasteko ohiturak indartzen. Borondatezko langileak izan gura dutenek Leioako GETegaz harremanetan ipini beharko dute telefonoz deituz (944 010 911), euren helbide elektronikora



Adingabeen ongizatea lortzea da GETen helburu nagusietako bat.

mezu bat bidaliz (eiseleioa@leioa.net) edo erakunde horren egoitzan aurkeztuz (Sabino Arana, 82, behea).

Zerbitzu berezi hori 1993an martxan ipini zuen Leioako Udalak. «Esan beharra dago zerbitzu hau aurrera ateratzeko ezinbestekoa dela bolun-

tariotza, hau da, herritarren laguntza», nabarmendu dute arduradunek. Zerbitzua gizarte-hezkuntzaren garapenerako ekintza bat da, batez ere gizarteratzearen eta familia barruko elkarkidetzaren alde egiten duena. ◀

izen-ematea: eiseleioa@leioa.net

«Uraren iruzurra» egiten dabilzala ohartarazi dute

Daborduko bi dira «uraren iruzurra» izenagaz ezaguna dena jasan duten leioaztarrek, Udaltzaingoak jakinarazi duenez. Polizia-iturriek azaldu dutenez, gezurren bitartez, ura garbitzeko iragazkiak saltzen ahalegintzen dira saltzaile falsuak, biktimaren etxean bertan egiten duten erakustaldi baten bitartez. Ustezko saltzaileek 1.900 euroengatik eskaini zizkieten ur-iragazki bereziak bizilagun horiei. Kasu bietan, Larraitz izeneko pertsona batek aurretiazko hitzordua telefonoz hartu zuen biktimakaz. Gauzak horrela, Leioako Udaltzaingoak herritar guztiei gogorarazi die Bizkaiko iturrietako ura



Ur-iragazkirik ez dute behar etxeko txorrotek.

edateko ona dela, eta ez duela inongo iragazkirik behar. Ildo horretan, herritarrei laguntza eskatu die, horrelako jokaera susmagarriak ikusterakoan, abisua emateko. ◀

Leioako Udaltzaingoa: 944 008 021

Maite Arreseren ipuinak entzuteko aukera, Kultur Leioan

Maite Arrese ipuin-kontalari beasaindarrak saioa eskainiko du urriaren 26an, eguaztenean, Kultur Leioako umeen liburutegian; 5 eta 9 urte arteko neska-mutilentzako emanaldia euskaraz izango da; sarrera, doan. 18:00etan hasiko da; beraz, umeen liburutegia 17:45etik 19:00etara itxita egongo da, ikuskizunera ez doazentzat. Ordua baino lehen bibliotekan bertan izena ematea beharrezkoa da. Maite Arresen kazetaritza-ikasketak egin zituen, Bilbon; eta antzerkiaren zein telebistaren munduan murgildu zen. Interpretazioko, distribuzioko eta komunikazioko lanak egin zituen bertan. ◀



Krisalida

JOXE BELMONTE F. DE LARRINOA
Idazlea

Arma trafikoa: betetzen ez diren legeak

Legea gizarte baten bizikidetzarako tresna da; komunitatearen zerbitzura dago, beraz, eta ez aldearantziz. Une konkretu batean eta zirkunstantzia zehatz batzuetan ezartzen dira. Testuingurua aldatzen denean, legeak ere aldatu behar dira, eta ez egoskor defendatu Jaungoikoaren egia absolutua balira bezala.

Bitxia da gero egunotan gobernu bat zirkunstantzia denengainetik legea defendatzen ikustea. Are bitxiagoa, legeak bete-tzearekin egoskor dagoen gobernu horrek bere legeak betetzen ez dituenean.

Espainiako Gobernua, Saudi Arabiari armak saltzen dizkionean, *Defentsa eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Komertziorako 53/2007 Legea* hausnartzen ari da. Munduko edozein lurraldetan bakea, egonkortasuna edo segurtasuna apurtzen ari den estatu bati armak saltzeko baimena ukatu egingo da, lege horren zortzigarren artikulua arabera. Saudi Arabia buru duen Koalizioak Yemengo Gerran ospitaleak, merkatuak, eskolak bombardatu, blokeoa inposatu eta laguntza humanitarioa eragotzi du, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren legea hautsiz. Nazio Batuen Erakundearen arabera, 19 milioi yemendar desplazatu daude laguntza humanitario horren beharrean. Giza eskubideak errespetatzen ez dituen estatuari, jarraitzen du artikulua, edota barne errepresioa eragiteko erabiltzen dituenari ere, ezin zaizkio armak saldu. Saudi Arabian giza eskubideen itzalik ere ez dago; gauza jakina da.

Are gehiago, 2014an sinatu zuen Espainiak NBE-ren Armen Komertziorako Ituna, gerra krimenen edo gizarte irainduko krimenen kasuan armen salmenta debekatzen duena, baita nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideen urraketa kasuetan ere. Legea! ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Zure enpresaren, negozioaren... iragarkia hemen!

HIRUKA KOMUNIKAZIO-TALDEA

Ipini gugaz harremanetan:

☎ 944 911 337
☎ 688 811 368
publi@hiruka.eus

Sopela



Konponketakaz, beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak bete gura ditu Sopelako Udalak.

Konponketa-lanak argiteria publikoan

Espainiako Industria Ministerioak arazoak antzeman ditu kaleko argietako 41 koadrotan.

Udalerriko argiteria publiko-ko instalazioen segurtasuna eta kalitatea hobetzen jarraitzeko asmoa berretsi du Sopelako Udalak. Ildo horretan, Behe-Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoagaz (BTEE) lotutako lehenengo faseko obrak egiten dihardute agintari sopoloztarrek; instalazioetako aginte-koadroak Espainiako Gobernu-ko Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak ezarritako egungo araudira egokitu gura dituzte.

BTEEren lehenengo fase honetan, hobetze-lanak egiten dabilta udalerriko 41 aginte-koadrotan. Era horretan, ministerioak detektatutako arazoak konpondu eta beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak bete gura

dituzte. Hobetze-lanen artean, besteak beste, kableatuko akats-puntuak, apurtutako argiak eta euri-ura izateko arriskua duten argi apurtuak konponzen dabilta. «Lan hauek auzo bazu-etuak zirkuituei eragin diezaiekete, argiteria publikoaren funtzionamendu egokian arazo puntualak sortuz», aditzera eman dutenez.

Gontzal Hermosilla Sopelako alkatearen berbetan, «maiatzetik, Udala argiteria publikoko kalte garrantzitsuak konpontzen ari da. Uneko itzalaldiak sortzen dituzten arazo txiki hauek detektatzen saiatzen ari gara lehenbailehen konpontzeko. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da, udal-teknikari arduradunek adierazi diguten bezala, arazo txiki hauek eragina duten zirkuitu bakoitzean banan-banan egin beharreko konponketa-lanak direla; arreta handiz egin beharreko lanak, alegia». Udalak lanen berri emango die auzoetako bizilagunei, bandoen bitartez. ◀

Genero-ikuspegiko hainbat ekitaldi, Itzartuk antolatuta

Itzartu emakumeen elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Batetik, gaur, eguena, urriak 19, *¿Y si vivimos todos juntos?* filma proiektatuko dute, 18:00etan, Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Hamarkadetan lagunak izan diren lau agurek etxe berean bizitzeko hartzen duten erabakia kontatzen du pelikula honek. Stéphane Robelin frantziarrak zuzendutako pelikula 2012an estreinatu zuten. Bes-

teak beste, Jane Fonda eta Geraldine Chaplin aktoreek parte hartzen dute. Gaurko saioan, gaztelaniaz emango dute. Bestalde, urriaren 25ean, eguaztanean, berbaldia eskainiko du Itzartuk: «kimioterapia-tratamendua hartu aurretik, bitartean eta ondoren joratu beharreko gaiez» berba egingo dute, euren egoitzan, Landa doktorea kaleko 3. zenbakian. Hitzordua 18:00etan ipini dute; sarrera, doan. ◀

Mintzodromoa egingo dute urriaren 26an, eguenean

Urriaren 26an, eguenean, Uribe Kostako Mintzodromoa egingo dute, Sopelan. Ekimen horren bitartez, euskararen erabilera zabalduta eta bultzatu gura dute. Horrenbestez, emanaldi bi egingo dituzte; biak Udaletxeko plazan. Lehenengo, 11:00etatik 13:00etara izango da; eta bigarrena, 18:00etatik 20:00etara. Ekimenean parte hartu gura duten bizilagunek aurretiaz eman beharko dute izena, Uribe Kosta Mankomunitateko web orrialdearen bitartez, 617 336 604 telefono zenbakira deituz, edo egunean bertan, emanaldia hasi baino lehen agertuz.

«Denak izango dira ondo etorriak, edozein dela euskaraz hitz egiteko gaitasuna; baldintza bakarra euskaraz hitz egiteko gogoia izatea da», adierazi dute udal-iturri sopoloztarrek. Gaineratu dutenez, «bakoitzak duen euskara maila duela ere, aukera ezin hobea



Mintzalagunak, Sopelako udal-pilotalekuan.

izango da euskaraz egin eta beste herritar batzuekin euskarazko harremanak egiteko».

Uribe Kosta Euskara Zerbitzuari dagokionez, 1997an jaio zen. Besteak beste, euskararen erabilera areagotzeko ekimenak landu eta gauzatzen ditu, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan. Horien artean, umeentzako ekintzak egiten dituzte. ◀

izen-emeatea: 617 336 604

Urepel eta Wight uharteko abesbatza, San Pedro elizan

Ingalaterrako Wight uharteko Camerata Chamber Choir abesbatzak kontzertua emango du zapatu honetan, urriaren 21ean, San Pedro elizan; emanaldi horretan, Urepel abestalde sopoloztarra lagun izango dute ingelesek. Emanaldia 20:00etan izango da; sarrera, doan. Urepel abesbatza 2015eko otsailean jaio zen; koroak izen handiko zuzendaria dauka: Irma Rutkauskaitte-Egiluz, Sopelako auzokidea baina Lituaniako Musika Akademia Nazionalean abesbatzetako zuzendaritza-ikasketak egindakoa. Camerata Chamber Choir abestaldeari dagokionez, 2010eko otsailean sortu zuen Jurgita Leistrumaitek. ◀

Peru eta otsoa antzezlan, Kurtzio kultur etxean

Domika honetan, urriaren 22an, *Peru eta otsoa* antzezlan taularatuko du DIDAU Antzerki Faktoriak, Kurtzio kultur etxean. Hitzordua 18:00etan ipini dute; sarrerak 3 euroan egongo dira umeentzat, eta 5 euroan helduentzat. *Peru eta otsoa*, Serguéi Prokófievrek 1936an idatzi zuen ipuin musikatua da. Musikari ukrainiarren asmoa, musika sinfonikoa umei modu dibertigarrian hurreratzea zen, eta honela egin zituen konposizio musikatua eta ipuinaren moldaketa ere bai. Ipuin errusiar bateko pertsonaiak hartu eta bakoitza instrumentu baten bidez irudikatu zuen Prokófievrek. Ikuskizuna 3 urtetik gorako umeentzat da. ◀



Plentzia

Erakusleihen eta pintxoehiaketan sariak banatu dituzte

Joan den urriaren 8an ospatu zen Plentziako III. Pintxo Lehiaketa. Guz-tira, udalerriko 13 establezimendu aurkeztu ziren norgehiagoka horretara eta horietatik denetatik Arrarte jate-txeak aurkeztutako pintxoak gailendu zen, 65,5 puntugaz; ostera, Kaian jate-txe-hotela lehiaketatik kanpo gelditu zen. Egun berean ere ospatu zen III. Erakuslehi Lehiaketa. Zazpi dendak parte hartu zuten txapelketa horretan, eta horietatik Marta Dendak proposatutako erakuslehiok jaso zuen lehengo saria, 20 puntugaz. Irizpide artistiko, tekniko eta komertzialen arabera ondoen dekoratutako establezimendua saritu du epaimahaiak. Parte-hartzaileek beren produktuak erabili behar izan dituzte erakuslehiok atontzeko, antolatzaileek azaldu dutenez.

Lehiaketa horien bidez saritu egin gura izan dute Plentziako saltzaileek eta tabernariak egiten duten ahalegina eta lana bezeroak erakartzeko. ◀

Irantzu Fernandezek zinegotzigoa utzi du

Irantzu Fernandez Barcos zinegotzi jeltzaleak kargua utzi du. Hala jakinarazi zuten joan den irailaren 27an egindako osoko bilkuran. Azaldu zutenenez, lan-arrazoiengatik uko egin dio zinegotzigoari, joan den 2015eko ekainaren 13an kargua hartu ostean. Bere ordez, udal-hauteskundeetara aurkeztutako hurrengo hautagaiak hartuko du Fernandez Barcosen lekukoa: Be-goña Hurtado Pozuecok, alegia. ◀

Birziklitzeko gune berri bi ipini dituzte

Udalak bi «puntu garbi» ezarri ditu hiribilduan, bata Goñi Portal kultur etxean eta bestea udaletxeko sarrean. Horren helburua da etxeko hainbat tresna batzea ondoren birziklatu ahal izateko. Puntu horietan material bereziak utzi ahal izango dira, berbarako idazteko materiala (boligrafoak, luma estilografikoak, arkatzak, fluoreszenteak, errotulatazaileak, markagailuak eta zuzentzekoak. Ezin dira bota guraizeak, itsasgarriak, borragomak, arkatzak eta erregelak); fluoreszenteak eta bonbillak (deskargazko lanpara, kontsumo gutxiko bonbillak eta fluoreszenteak. Ezin dira bota filamentuzko bonbillak eta halogenoak); CDak eta DVDak; eta tinta-kartutxoak, toner-kartutxoak eta telefono mugikorak. ◀



Futbol-zelaiko harmaila berrituko dute, besteak beste.

Errotabarri futbol-zelaian, konponketak

Mantentze- eta konpontze-lanak egin dituzte futbol-zelaian. Bertako bankuak ere berritu dituzte.

Plentziako Errotabarri futbol-zelaia mantentze-lanetan murgildu da egunotan. Hura berritzeko kontratua esleitu zenean horixe eskatzen zen; hala, azpiegituraren egoera orokorra begiztatu dute orain, ureztatze- eta drainatze-sareena, besteak beste. Era berean,

zelaia zer-zelako egoeran dagoen ikuskatu dute baita ere, behar diren konponketak egin ahal izateko. Horren ondoren, teknikariak egindako konponketa denen txosten bat osatu dute, plano eta guzti. Era berean, tribunako bankuak ordezkatzeko lanak egin dituzte. Orain arte bertan egon direnak indibidualak ziren, eta oso zaharkituta zeuden. Hala, horiek ordezkatu eta luzeagoak jarri dituzte. Lan horiek denek 9.283,12 euro baino gehiagoko aurrekontua izan dute.

Plentziako Errotabarri futbol-zelaia estreinatu zuten iaz, ia urte bi

itxita egon ostean. Orain dela ia hiru urte, bere 90. urteurrena zelaz ozipindu zen ikusi zuen Plentzia Kirol Elkar-teak, Errotabarri futbol-zelaiak zeuzkan egoera-baldintza arriskutsuak zirela eta. Ez ziren gutxi izan klubaren jarraipena zalantzan ipini zutenak. Izan ere, jokalekuaren konponketak behin eta berriro atzeratu ziren; joan den urteko azarora arte, Errotabarriko futbol-zelaia berriro estreinatu baitzuten. Urtebete igaro da futbol-taldeko jokalaria zelaia berriro erabiltzen hasi zirenetik, eta orain hura berritzuko dute berriro ere. ◀

Lemoiz

Udal-gimnasioko teilatua birgaitzeko diru-laguntza

Lemoizko Udalak jakinarazi duenez, udal-gimnasioko teilatua birgaitzeko egin behar diren obrak ordaintzeko diru-laguntza ematea onartu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Herri Administrazioako eta Era-kunde Harremanetarako Sailak eman du laguntza hori, 24.137,97 eurokoa, alegia. Udal-iturriek azaldu dutenaren arabera, lanok «laster» abiatuko dira. Izan ere, obrak martxan ipintzeko esleipena eginda dago daborduko; hala ere, dokumenturen bat falta dela adierazi dute. Udal-gimnasioa Armintzan dago, aspaldi eskolak zeuden lekuan. Udalak azaldu duenez, azpiegituraren



sabaiaren estaldura egoera «oso txarrean» dago, baita gimnasioaren horma denak ere. Hori dela eta, horiek birgaitzeko lanak abiaraziko dituzte datozen egunetan. ◀

Urduliz

Datorren urtean zabalduko dute hilerri berria

Hilerri berria datorren urtean zabalduko dute Urdulizko Udalak. Azpiegitura 2012an bukatu zuten arren, hura zabaltzeko sarrera segurua egitea da beharrezkoa. Horretarako, biribilgunea urrian eraikitzea du aurreikusita Udalak. Ostera, beharrak amaitu ondoren, hilerri zaharra itxeko, lekualdaketa egiteko eta azpiegitura berria irekitzeko ikerketa egiteko enpresa kontratatuko dute. Hilerri berria eraikitzeko lanak 2012an amaitu ziren, 1,5 milioi euroko kostua izan zuten. Eremuak 7.700 metro koadro ditu eta gaur egun erdigunean dagoenaren ordezkoa izango da. ◀

Barrika

Istripu ugaridun bidea

Barrika zeharkatzen duen BI-2122 errepidearen segurtasuna zalantzan jarri du EH Bilduk.

Barrikako EH Bilduk jakinarazi duenez, 2017an zazpi istripu jazo dira udalerria alderik alde zeharkatzen duen BI-2122 errepidean. Gogoratu dutenez, errepide hori Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du, eta horrek aldiro radar mugikorak jartzen ditu inguru horretan, «baina arriskua ez da amaituko isunak jartzearekin». Koalizio abertzaleak gogoratu du duela urtebete errepidearen ondoan bizi diren auzokideek 130 sinadura baino gehiago bildu zituztela eta Udalari zein Aldundiari bidali zizkietela; hala ere, oraindino ez dute irtenbiderik jaso. Besteak beste, arazoa erre-



Bidean dagoen abiadura-muga txikitzea proposatu du koalizio abertzaleak.

pidetan dagoen abiadura-muga dela deitoratu du koalizio abertzaleak, 50 kilometro orduko mugatik 80kora igotzen baita aldiro, «biribilgunearen irteeratik metro gutxira autobus-geltokibat eta errepide bazterrean etxebizitza

bi daudela kontutan hartu gabe». Hori dela eta, udalerria zeharkatzen duen bidean abiadura muga 40 kilometro ordura mugatzea gomendatu dute, baita 250 metrora sakanguneak jartzea, abiadura hori mantentzera behartzeko. ◀

Berango

Euskaran murgiltzeko Irakurketa Erraza tailerra, azaroan

Berangoko Liburutruk Kultur Elkarteak Irakurketa Erraza tailerra egingo du azaroan. Saioak martitzenetan izango dira, Berango eta kultur etxeko areto nagusian, 18:00etatik 19:00etara. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Irakurketa Errazeko liburuak erabiliko dituzte saio horietan. Liburuok hizkuntza berri bat ikasten ari den jendearentzako zein irakurketan zailtasuna duen jendearentzako egokiak dira. Hala, kasu horretan, euskara ikasten ari den jendeari zein euskaraz irakurri gura duen jendeari bideratuta egongo da tailerra: «talde-lanean irakurmena lantzeaz gainera, mintzamenak ere protagonismo handia izango du». Tailerra 17 urtetik gorakoentzat bideratuta dago eta doakoa izango da; hala ere, alde aurretik izena eman beharko da, parte-hartzaile kopurua mugatua izango baita. ◀

izen-ematea: liburutruk@gmail.com

BEI C! BILBAO EXHIBITION CENTRE — XIII —

STOCK EUSKADI!

3-4-5 AZAROAK

MODA DESKONTUAK

EROSKETAK

PAGOTXA ITZELAK

LOZKETAK

3.000€ KIROLA

LEHEN MAILAKO MARKAK

FOOD TRUCKS ETXEKOAK

11:00ETATIK 21:00ETARA ARTE

GURE APP-A JAITSI ETA ARE GEHIAGO JAKIN!

ESKAINTZARIK ONENAK

ETA ASKOZ GEHIAGO!



Egin, egiten gara

LUR
MORAGUES SAITUA
Bilgune Feministako kidea

Babesarkatu, mamboetan aurrera egiteko!

Emozioek gogorki hartutako egunak izan dira joandakoak. Tosuko erresistentzia gunearen desalojoan tristetu egin naiz momentu batez. Bertan sortu den guztia desegingo bailitzan. Ilusioa eta itxaropena nagusitu zaizkit segituan, baina. Urbanizazio basatia jasaten ari garen Uribe Kostan, lurak izaten jarraitzea lortzerik badagoelako. Beste mundu bat posible dela sinisten duen jendearen indarra sentitu dut! Horrela ospatu genuen bada Getxon elikadura burujabetzaren nazioarteko egunaren hurrengo. Elikadura eta energia burujabetzari beste ate bat itxi nahian. Lolita Chavez, Lorena Cabnal eta Victoria Chavez eza-gutu izanak guztiz biziberritu nau. Ausardia, poza, duintasuna eta borrokarako grina igorri egiten duten ekintzaile feministak dira, euren bizitzak mehatxatuta badaude ere. Transnazionalen arpilatzeari aurre egin, eta lurra- ren eta bizitzaren defentsa egiteagatik jazarriak dira. Patriarkaturik gabeko etorkizunean sinisten dute, bizitza erdigunean luketen komunitate burujabean. «Defender os montes é defender a vida» diote Galizako feministek ere bai.

Hala da. Burujabetza feministaren deia sentitzen dut inoiz baino fuertago nire baitan! Biolentzia matxistaren albisteek Euskal Herrian etengabe jarraitzen duten honetan. Min handia sentitzen dut. Andre askok beraien bizi-gorputzekin hartutako determinazioaren aurrean, ukazioa eta jazarpena pairatu izan dute. Batzuk bizitzaz gabetzeraino. Babesarka gaitezen beraz! Ideien, praktiken, politiken eta ekonomiaren bidez pertsonok azaletan bizi ditugun zapalkuntzekin amaitzea hil ala bizkoa da. Gure etorkizunaz eta erabakitze eskubideaz arituko bagara, ekin diezaiozun *danontzako* bizitza duinak bermatzeko bidei. ◀

Uribe Kosta



Azaroaren 5ean egingo dute herri-galdeketa eskualdeko hainbat herritan.

Aurretik botoa ematea, aukeraren

Eskualdeko lau herritan egingo diren galdeketa aldez aurretik botoa eman ahal izango da.

Azaroaren 5ean, erabakitzeko eskubidearen aldeko herri-galdeketa antolatuko ditu Gure Esku Dagok eskualdeko lau herritan: Berangon, Erandion, Getxon eta Leioan. Hori dela eta, hautetsontziak kalera atera eta botoa emateko hainbat leku ipiniko dituzte egun horretan lau udalerrietan. Hala ere, azaroaren 5ean botoa

ematera hurreratu ezin izango direnek alde aurretik bozkatu ahal izango dute egunotan. Botoa eman ahal izango dute 16 urtetik gorakoek, aurkeztuz gero NANA, pasaporte, EHNA (errola ziurtagiriagaz), gidabaimena edo Atzeritarren Identifikazio Zenbakia. Gaur artean herri-galdeketa antolatu duten herrietatik handiena izango da Getxo; «zalantzarik gabe, olatu honetan salto kualitatibo garrantzitsua», adierazi du GEDk. Bizkaiko eta Gipuzkoako 13 herritako 160.000 biztanlek erantzun ahal izango diete GEDk egindako galderi egun horretan. ◀

Indarkeria matxistaren aurkako adaxkak ipiniko dituzte eskualdeko hainbat txokotan

Andra Barriak Emakumeen Kontseiluak indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizatorako kanpaina martxan ipini du. Horren barruan, hilabete honetan eskultore baten egindako zuhaitz-adaxkak ipiniko dituzte Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako hainbat lekutan, berbarako Barrikako liburutegian, Lemoizko udaletxean eta Plentziako Goñi Portal eta Sopolako Kurtzio kultur etxeetan, besteak beste. Ondoren, mezudun begiztak eskegiko dizkiote adar horiei.

Hori dena egin ostean, jakinarazi dutenez, herri denetako adarrakaz batera eskultura bat osatuko dute Urduli-



zen, azaroaren 25ean izango den Emakumeen Topaketan. Zuhaitz-eskultura Urdulizko Torrebarri kaleko Inola elkartearen egoitzaren ondoan ipiniko dute, hil dituzten emakume guztien oroimen gisa eta borroka feminista-

Boto aurreratua

Berango

Urriak 24 eta 25. 12:00etatik 14:00etara, Frontoia inguruan.

Urriak 26 eta 27. 19:00etatik 21:00etara, Frontoia inguruan.

Erandio

Urriaren 23tik azaroaren 4ra. Martitzen, eguazten eta barikuetan: 19:00-21:00 eta zapatuetan 11:00-13:00, Gure Esku Dagoren Altzagako lokalean.

Urriaren 23tik azaroaren 4ra. Astelehen eta eguenetan: 19:00-21:00 eta zapatuetan 11:00-13:00, Gure Esku Dagoren Astrabuduko lokalean.

Getxo

Azaroaren 4ra arte (egun hori barne). Algortako Gure Esku Dagoren lokalean. Astelehenetik barikura: 12:00-14:00 eta 18:30-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00.

Urriaren 30etik azaroaren 4ra (biak barne). Itzubaltzeta/Romoko elizaren arkupeetan. Astelehenetik barikura: 11:00-13:00 eta 18:30-20:00. Zapatuetan: 11:00-13:00

Urriak 23 eta 24. Aixerrota BHI, 11:00-11:30 eta irteera orduak.

Urriak 26 eta 27. Artaza-Romo BHI, 11:00-11:30 eta irteera orduak.

Urriak 30 eta 31. Julio Caro Baroja BHI eta Fadura GLHBI, 11:00-11:30 eta irteera orduak.

Leioa

Eguenero, azaroaren 2ra arte. Gure Esku Dagoren lokalean, 11:00-14:00 eta 18:00-20:30.

Urriaren 21ean, zapatuan. Pinuetan, Drogas Anton dendaren aurrean, 12:00-15:00.

Urriaren 28an, zapatuan. Boulevardean, 12:00-15:00 eta 18:00-20:30.

ren ikur gisa. Modu berean, indarkeria matxista salatze elkarretaratze egingo dituzte hilabete denetako lehenengo astelehenetan Larrabasterako Urgitxieta plazan, 19:30ean. Uribe Kostako Andra Barriak Emakumeen Kontseiluak deituta, joan den irailaren 2an egin zuten lehenengo mobilizazioa. Horrenbestez, hurrengo elkarretaratzea azaroaren 3an izango da, aurrekoen leku eta ordu berean.

Aipatutako elkarte hilean behin batzen da, eta edozein emakumek parte har dezake horretan. Hileko lehenengo astelehenean biltzen dira Larrabasteran, Mankomunitatearen egoitzan, 17:30etik 19:30era. ◀

Zure bila gabiltza!

Zu eta biok, **hirukan**, bultzada bera!
Trukean: zozketak, sariak, astekaria eguazteno...

944 911 337 hiruka@hiruka.eus





Perretxikozaleen sasoia heldu da, oraindino «eguraldia lagun» ez izan arren.

Udagoieneko gutiziaz

Jardunaldi mikologikoak antolatuko dituzte datozen egunotan Getxon, Gorkizen eta Plentzian. Horietan, askotariko onddoez eta perretxikoez gozatu ahal izango dute auzokideek.

Udaren akabua eta udagoienaren hasiera izan ohi da perretxikoak eta onddoak batzeko garairik onena. Hori dela eta, zumezko saskia eskutan, mendira zein basora joaten den jendea ikustea ez da arraroa egunotan, lurreko fruitu horiek oso estimuan baitaude inguruotan. Horrez gainera, urtero legez, onddoei eta perretxikoei lotutako jardunaldiak egingo dituzte datozen egunotan Uribe Kostako hainbat elkarte mikologikok, barbarako Getxon, Gorkizen eta Plentzian.

Getxoztarrak izango dira mikologian murgiltzen lehenak. Izan ere, Basozaleak elkarte mikologiko eta botanikoak onddoen bila joateko irteera antolatu du hilaren 21erako, zapatu-rako; ondoren bildutako dena sailkatu eta erakusketa egingo dute hurrengo egunean, domekan. Onddoen eta pe-

retxikoen erakusketa hori Algortako San Nikolas plazan dagoen frontoian izango da, 11:00etatik 14:00etara. Horrez gainera, perretxikoak dastatzeko aukera egongo da bertan. Egun horretan ere, 16 urtetik beherako neska-mutilentzako perretxikoak sailkatzeko txapelketa egongo da.

Getxoko Basozaleak elkarteak antolatutako XVIII. Mikologia Jardunaldietan ere hainbat berbaldi egongo dira Villamonte kultur etxean,

Onddoei eta perretxikoei lotutako askotariko jarduerak egongo dira aukeran egunotan

19:30ean. Hala, lehena hilaren 24an izango da, martitzenean. Horretan, Josué Rodríguez biologoak Uribe Kostako zelaietan aurki daitezkeen perretxikoen inguruan berba egingo du. Hurrengo berbaldia egunean izango da, hilaren 26an. Bertan, izen zientifikoaren esanahiez arituko da Zigor Ugartetxe biologoa. Amaitzeko, hilaren 31n, martitzenean, mikologiari eta sukaldaritzari buruzko berbaldia eta tailerra

egingo dute Algortako Aldai patronatuan, 19:30etik aurrera. Bertan, besteak beste, onddoez betetako arrautzak prestatzen ikasiko dute.

Saioak, Gorkizen eta Plentzian

Hilaren akabura bitartean, mikologiari lotutako hainbat saio ere egongo dira Gorkizen eta Plentzian. Hala, hilaren 28an, Murgiara joateko irteera egingo dute Gorkizen, goizeko 07:30ean, Eliz plazako autobus-geltokitik abiatuta. Onddoak eta perretxikoak bildu gura dutenek alde aurretik eman beharko dute izena. Hurrengo egunean, domekan, askotariko jarduerak egingo dituzte San Pedro plazan, 11:30etik aurrera, barbarako, perretxikoen erakusketa, mahai didaktikoak, umeen perretxiko-lehiaketa, artisau perretxikoen erakusketa, onddo eta perretxikoez egindako pintxoaren dastaketa eta argazki- eta pintxo-lehiaketako sari banaketak.

Ostera, Plentziako XXXVIII. Jardunaldi Mikologikoaz gozatzeko azaroaren 5era arte itxaron beharko da. Egun horretan umeentzako perretxikoak sailkatzeko lehiaketa (10-15 espezie egongo dira), egurrez egindako onddoen erakusketa eta pintxo-dastaketa egongo dira, 12:00etatik aurrera, Ontziola plazan. ◀

Egitarauak

Getxoko XXVII. Mikologia Jardunaldiak

Urriak 21, zapatua Irteera mikologikoa eta espezieen sailkapena.

Urriak 22, domeka Erakusketa eta perretxiko-dastaketa, Algortako San Nikolas plazan, 11:00etatik 14:30era.

Urriak 24, martitzena Uribe Kostako zelaien perretxikoak berbaldia, Algortako Villamonte kultur etxean, 19:30ean.

Urriak 26, eguna Izen zientifikoaren esanahia berbaldia, Algortako Villamonte kultur etxean, 19:30ean.

Urriak 31, martitzena Mikologia eta sukaldaritzaren Sukaldaritzari buruzko berbaldia, dastaketa eta tailerra, Algortako Aldai patronatuan, 19:30ean.

Gorkizko XVI. Jardunaldi Mikologikoak

Urriak 28, zapatua Irteera mikologikoa Murgiara, Eliz plazatik, 07:30ean.

Urriak 29, domeka Askotariko jarduerak San Pedro plazan: perretxikoen erakusketa, mahai didaktikoak, umeen perretxiko-lehiaketa, artisau perretxikoen erakusketa, pintxo mikologikoen dastaketa, perretxikoen argazki-lehiaketako saria eta V. Pintxo Lehiaketako saria, 11:30etik 15:00etara.

Plentziako XXXVIII. Jardunaldi Mikologikoa

Azaroak 5, domeka Umeentzako perretxikoak sailkatzeko lehiaketa; onddoen erakusketa eta pintxo-dastaketa, 12:00etatik aurrera, Ontziola plazan.

hirulkagenda

Urbe Kostako astekaria

2017ko urriaren 19tik urriaren 25era arte



hiruka.eus

Freedom under load film eskoziarrak lanik onenaren saria irabazi zuen iaz, Bilbon. © BMFF - K2 STUDIO



SOPELA

Mendiak emandako irudirik onenak, ikusbide

Joan den abenduaren 9tik 18ra arte, Bilbao Mendi Film Festival (BMFF) jaialdiaren bederatzigarren edizioa egin zuten. Bada, festibala galdu zutenek Sopelan izango dute Bizkaiko hiriburuan proiektatutako pelikula onenariko batzuk ikusteko aukera: bariku honetan, urriaren 20an, hiru ikus-entzunezko lan emango dituzte, Kurtzio kultur etxean; sarrera,

doan. Emanaldia 19:30ean hasiko da. Hala, *E.B.C. 5300m* (Film labor onena 2016ko BMFFn), *Anapurna III. Unlimbed*, *Boys in the Bugs* (Eskaladako pelikularik onena, iaz) eta *Freedom under load* (ikus-entzunezko lanik onenaren saria irabazi zuen, Bilbon). Film denak euskaraz jarraitu ahal izango dira, azpitu-luhen bidez. Besteak beste, *Freedom under load* film

eslovakiarrek zinema-aretoetara ekarri du Tatra mendietako zamaketa-rien historia, Polonia eta Eslovakiako mugan, Karpatoetan. Zehazki, zama-ketari horien azken belaunaldiaren gaineko lana da. Pavol Barabas zuzendariak kontatu du, 58 minututan, zergatik hautatu zuten bizimodu hori, eta zergatik jarraitzen duten Europako azken mohikanoak izaten. ◀

2017ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

Urria / 2017

BIZKAIA

www.bizkaikoa.bizkaia.eus/jep

Getxo

2017/10/20

12:30 Begoñako galerietara bisita gidatua. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Informazioa eta erreserbak: 944 910 800

2017/10/21

11:00 *Los malakates de Getxo: tentáculos de la estación de bombeo de Elorrieta* bisita gidatua. Algotako Erredentore elizatik abiatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Informazioa eta erreserbak: avpiop@avpiop.com

2017/10/22

11:00 *Utziazu Getxo kontatzen: Punta Begoña* ipuin-kontalaria. Begoñako galerietan (Ereaga hondartzan). Euskaraz. Sarrera, doan. Informazioa eta erreserbak: 944 910 800

Erandio

2017/10/22

09:30 *Erandio ezagutuz* herri-ibilaldia, Astrabuduko Josu Murueta eta Altzagako Irailaren 23a plazetatik abiatuta. Gaztelaniaz. Doan. Informazioa eta erreserbak: 944 890 140

Berango

2017/10/02-2017/10/31

09:30 *Hormigoizko paisaiak* argazki-erakusketa, Berangoeta kultur etxeko ekitaldi-aretoan. Euskaraz eta gaztelaniaz. Astelehenerdik barikura, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Doan. Informazioa: 946 682 143

Plentzia

2017/10/21

10:00 *Eraldaizen ari den paisaia* ibilaldi gidatua piraguaz, Gazteluondotik abiatuta. Plentziako Piragua Taldeak antolatuta du, Udalgaz batera. Euskaraz eta gaztelaniaz. Doan. Informazioa eta erreserbak: 946 774 199

ANTZERKIA

URRIAK 20, BARIKUA

Esto no me lo esperaba

20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Zanguando Teatro taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 6-12 euro.

URRIAK 21, ZAPATUA

Oscar Vivi & Cia transformismo-ikusbizina

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Gaztelaniaz. Sarrera: 1 euro.

URRIAK 22, DOMEKA

Peru eta otsoa

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

DIDAU Antzerki Faktoriagaz. Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 3 euro (umeentzat) / 5 euro (helduentzat).

URRIAK 20, BARIKUA

Mila zapore

19:00 | Azebarri kultur elkarteak | Getxo

Munduko gastronomia-talerra eta kulturen arteko afaria antolatuta ditu Getxoko Bizilagunak elkarteak. Informazioa eta izen-ematea: getxobizilagunak@gmail.com

IKASTAROAK

URRIAK 21 ETA 22

Gorputz-adierazpenen tailerra

17:30-20:30 | Fadura kiroldegia | Getxo

AHO-RA ekimen feministak antolatuta. Doan. Izen-ematea: ahoraekimena.wordpress.com

URRIAK 24, MARTITZENA

Argazki-teknikak

19:30-21:00 | Atxutegi kalea, 15 | Erandio

Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

JARDUNALDIAK

URRIAREN 20TIK 22RA ARTE

Curuguay Aktibismo Eskola

Egun osoan | Plentzia eta Gorliz

VSF Justicia Alimentaria Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta. Elkadura-burujabetza lantzeko hainbat ekintza egongo dira. Doan.

AZOKAK

URRIAK 22, DOMEKA

Perretxikoen erakusketa

11:00-14:30 | San Nikolas plaza | Getxo

Getxoko 27. Mikologia Jardunaldiak. Basozaleak elkarteak antolatuta. Perretxikoak dastatzeko aukera eta horiek sailtzeko lehiaketa (16 urterik behar duenentzat) osoratu dira. Informazioa: perretxiko@perretxiko.eus

URIBE KOSTA

Eskultura-tailerra, Euskaraz Olgetanen

Urriaren 19tik 22ra arte, eskulturaren jarduteko aukera izango dute umeek, euskaraz. Uribe Kostako Mankomunitateak antolatuta, Plentzian, Urdulizen, Gori-zen eta Sopelan egongo da saio bana. ◀

info•• www.uribekosta.eu

GETXO

Ipuinaren Ordua, Eneko Haritzagaz

Eguen honetan, urriaren 19an, *Mundan asko bezala* ikuskizuma eskainiko du Eneko Haritza ipuin-kontalaria. Hitzordua 18:00etan ipini dute, Gobelako umeen liburutegian; sarrera, doan.

Saioa euskaraz izango da. ◀

ERANDIO

Liburutegien Eguna egingo dute

Urriaren 24an, martitzenean, Liburutegien eguna egingo dute, Altxagak eta Astrabuduko udal-biblioteketan. Hala, 18:00etatik aurrera, 5 urteik gorako umeentzako tailerrak egingo dira, batean zein bestean, euskaraz. ◀

Perretxikoen erakusketa

11:00-14:30 | San Nikolas plaza | Getxo
Getxo 27. Mikologia Jardumaldiak. Basozaleak elkarrekin antolatuta. Perretxikoak dastatzeko aukera eta horiek sailkatzeko lehiaketa (16 urteik beharagoentzat) egingo dira. Informazio gehiago: www.basozaleak.com

BERBALDIAK

URRIAK 19, EGUENA

Herritarren kontsulta: parte hartzeko arazoak mahai-ingurua

19:00 | Faduraako areto nagusia | Getxo
Getxo 27. Mikologia Jardumaldiak. Elixabete Piñol abokatuak, Helena Franco Ekonomia eta Zientzia Enpresarialetan doktoreak eta Neskutz Rodriguezen Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziadunak berba egingo dute. Sarrera doan.

URRIAK 24, MARTITZENA

Uribe Kostan aurki daitezkeen perretxikoei buruz

19:30 | Algortako kultur etxea | Getxo
Getxo 27. Mikologia Jardumaldiak. Basozaleak elkarrekin antolatuta. Josué Rodriguezen biologiak berba egingo du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Informazio gehiago: www.basozaleak.com

URRIAK 25, EGUAZTENA

Kimioterapiari buruz

18:00 | Landa doktoarea, 3 | Sopela
Izartu emakumeen elkarrekin antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

ERAKUSKETAK

URRIAREN 27RA ARTE

Rosa Diazen eta Miren Berastegiren margolanak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Sarrera, doan.

AZAROAREN 6RA ARTE

Ertibil

Kultur Leioako erakusketa-gela | Leioa
Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ikus-artearen erakusketa ibilbidea. Hamabost artelan ikus daitezke. Sarrera, doan.

GASTRONOMIA

URRIAREN 19TIK 22RA ARTE

Dastatu Getxo

Hainbat taberna | Getxo
Getxo 27. Mikologia Jardumaldiak. Basozaleak elkarrekin antolatuta. Perretxikoak dastatzeko aukera eta horiek sailkatzeko lehiaketa (16 urteik beharagoentzat) egingo dira. Informazio gehiago: www.getxoepresa.com

MUSIKA

URRIAK 21, ZAPATUA

Urepel eta Camerata Chamber Choir abesbatzak

20:00 | San Pedro eliza | Sopela
Sarrera, doan.

Hellmuga

21:00 | Plaza Beltza kulturgunea | Sopela
Sarrera, doan.

URRIAK 22, DOMEKA

Dantzaldia

17:30 | Altxagako azoka zaharra | Erandio
Los Palmeras taldeagaz. Sarrera, doan.

ZINEMA

URRIAK 19, EGUENA

¿Y si vivimos juntos?

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Izartu emakumeen elkarrekin antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

URRIAK 21, ZAPATUA

Zinetxiki zinema-kontzertua

18:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Bost film labur proiektatuko dituzte, eta horien soinu-banda zuzenean joko dute. Testu barik. Sarrera: 2 euro.

Silencio

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

URRIAK 21 ETA 22

Tadeo Jones 2

17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3-5 euro.

URRIAK 21ETIK 23RA ARTE

Barry Seal: el traficante

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Filma 16 urteik goragoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 4-5 euro (ikusleen eguna: 3-5 euro).

URRIAK 24, MARTITZENA

Taxi Teherán

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Peiseo zineforuma. 7 urteik goragoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2-5 euro.



Matxalen de Pedro eta Igor de Quadra igoko dira oholtzara.

Iragan perfektua antzerkia, Plentzian

Matxalen de Pedro eta Igor de Quadrak ekoiztutako lan eszenikoa da *Iragan perfektua*; 2011n sortu zuten, Horman Poster kolektiboagaz. Antzezlanak 70eko hamarkada hartzen du gai nagusitzat: urte horietako irudiak erabiltzen ditu, memoriari eta distantziari buruzko gogoeta egiteko. ◀

Noiz: Urriak 22, domeka.

Ordua: 19:00

Non: Goñi Portal kultur etxea.

Sarrera: Doan.

argi
hizki
ak 2017

ARGAZKIEIATAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
VI. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkiak

Urriaren 20tik 27ra
Algortako azokan (Torrene, 4)





Munduko gastronomia-tailerra eta kulturen arteko afaria bihar egingo dute, barikuan, 19:00etan, Azebarrin. © GETXOKO BIZILAGUNAK

Mila zapore gozatzeko

Kultur aniztasuna ospatzeko, elkar ezagutzeko eta munduko gastronomiaz gozatzeko eta ikasteko hitzordua ipini du Getxoko Bizilagunak ekimenak, barikuan.

Lehenengo, sukaldaritza-tailerra egingo dute; ostean, prestatuko hamaika jatorritako jakiak afaldu. Urriaren 20an izango da Getxoko Bizilagunak ekimenak antolatu duen Mila Zapore jar-

duera, barikuan, 19:00etan, Azebarri kulturgunean (Euskal Herria kalea, 14, Algorta). «Sukaldaritza-tailer honetan, talde txikietan eta hainbat jatorritako irakasleek gidatuta, afaltzeko menua prestatuko dugu, hainbat herrialde-

ko plater tipikoak egiten ikasiko dugu; Euskal Herriko eta munduko jakien bidez jendea eta kulturak ezagutu gura ditugulako», azaldu dute antolatzaileek. Berbalagunak, Getxoko Etorikinen Plataforma Federazioa, Azebarri, Ibilki eta Zurrumurrurik ez estrategiako kideen artean prestatu dute jarduera; izan ere, horiek osatzen dute Getxoko Bizilagunak ekimena. Parte hartzeko, izena ematea beharrezkoa da. ◀

Hitza emanda



Perretxiko

Udazkenez ikusi ohi dira askotan gure Euskal Herriko hamaika basotan. Perretxikoak legez dabiz egunotan independentziaren aldeko borrokan!



ARKAITZ GOMEZ AGIRRE
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Stock Euskadi azoka egingo dute Barakaldoko BECen

Azaroaren 3tik 5era bitartean izango da aurtien «Euskadiko outlet azokarik handiena», antolatzaileen esanetan. Stock Euskadi merkatuaren XIII. edizioa izango da aurtengoa, eta Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-n (BEC) egingo dute, aurreko urteetan legez. «Pagotxa handien merkatua» 11:00etatik 21:00etara arte zabalik egongo da azaroko lehenengo aste-akabuko hiru egunetan, BECeko 1 pabiloian. Ipiniko dituzten 200 salmahaietan baino gehiagotan, «beherapen handia» izango duten denboraldiz kanpoko produktuak erosi ahal izango dira, hamaika arlotakoak: modakoak, osagarrienak, kiroltakoak, etxeakoak, aisialdikoak, elektronika-koak eta abarrekoak.

Azokaren APP bat egin dute lehenengoz; doako aplikazio horren bidez, saltzaileen informazioa eskuragarri ipiniko dute, erosketak errazteko, eta beherapen-bonuak ere zozkatuko dituzte erabiltzaileen artean. ◀

Sormenaren lurraldea izango da Durangoko Azoka



Abenduaren 6tik 10era egingo da. © DA!

Joan den martitzenean aurkeztu zituzten 52. Durangoko Azokaren kartela eta goiburua: Sormenaren lurraldea DA! izango da aurtengo ildo nagusiak batuko dituen gaia. Kartelari dagokionez, Jose Antonio Sistiaga margolariak egin du, *Impresiones en la alta atmosfera* pelikula esperimentalaren diapositiba batean oinarritu da eskuz margotutako zeluloidea egiteko, eta «unibertsoaren sorrerara egindako bidaia» iradoki gura du. Durangoko Azoka abenduaren 6tik 10era bitartean egingo da. ◀

Zientzia-pilulak



EDUARDO SAN ANDRES ARANA
Matematika irakaslea

Eppur si muove...
Bai, mugitzen da... eta nola!

Erromako Santa Maria dominikoen komentuan, 1633. urteko ekainaren 22an, Urbano VIII aita santuak zuzendutako auzi batean, Galileo (eta bide batez pentsakera arrazionala) umiliatua izan zen. Bere unibertsoaren ikuspegi heliozentrikoa (Eguzkia erdian eta Lurra inguruan bueltaka) heretikotzat hartu zen (ikusmen erlijiosoan Lurra eta gizakia, Jainkoaren irudian eginda, erdian egon behar ziren) eta Galileo, belaunikatuta, bere teoria ukatzera behartua izan zen. Gelatik irtetean, ordea, xuxurlatu omen zuen: *eppur si muove*: hala ere, mugitzen da.

Baina, zelan mugitzen da? Tamesis ibaiaren ertzean, norria ikaragarri bat dago, London Eye. Goitik London osoa behatzeko parada liluragarria dago. Bere erradioa 60 metrokoa da eta ordu erdi ematen du buelta bat egiteko, beraz, 30 minututan $2 \cdot \pi \cdot R = 2 \cdot 3,14 \cdot 60 = 377$ metro edo 0,377 km egiten ditu, erraza da kalkulatzeko bere abiadura 0,75 km/h dela.

Eguzki sisteman Lurra norria erraldoi bat bezala da, eta kontutan hartuta erradioa (hau da, distantzia Lurretik Eguzkira), prozesu berbera eginez, aise kalkulatu duzu Lurraren abiadura Eguzkiaren inguruan 107.534 km/h dela (kalkulua egitera gonbidatzen zaitut, suposatuta behar da ibilbidea eliptikoa ez ezik zirkularra dela). Gainera Eguzkia ere Galaxiaren zentroaren inguruan dabil bueltaka. Errepikatu prozesua eta ikusiko duzu abiadura 751.489 km/h dela. Ikaragarria. Eta, hala ere, Eguzkia sortu zenetik, orain dela 4.500 milioi urte inguru, galaxiaren inguruan 20 buelta besterik emateko ez du astirik izan. Horretaz gain, galaxiak haien artean aldentzen dira abiadura imajinaezinetan...

Bai, Galileo jauna, arrazoi osoa zeneukan... *eppur si muove*, eta nola! ◀

«Orokorrean, Oi! eszena oso maskulinizatuta dago, zoritzarrez»

Hexen boskotea

Alemanian egongo da kontzertuak eskaintzen azaroaren 10etik 12ra bitartean; zenbait taldekide eskualdekoak dira.

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO

Akelarre batean barne murgilduta topatu nituen, lapikoa igel eta ahuntz begiz beharrean, garagardo betetzen duten bost sorginetako hiru, beste biak euren erratzetan hegaz zebiltzala. Beldurrez ekin nion elkarrizketari, euren gustukoa ez izatekotan, begizkorik egingo ei zidatelakoan.

Zoritzarrez, Oi! mundua gizonekin bakarrik eta testosterona-tasa handiekin lotua izan da; zuek emakumezkoen boskotea lortu duzue eta mundu horretan zabilzate. Zer dela eta? Zelan izaten ari da esperientzia?

Maria: Elkarrizketa askotan galdeztzen digute, zergatik emakumezkoen musika-talde bat? Eta guk: Zergatik ez?, erantzuten diegu. Azkenean, gure mundua ere hauxe delako.

Jone: Esperientzia oso ona izaten ari da. Oso positiboa.

Bostak nahiko ezberdinak zarete, eta herri ezberdinetakoak ere bai; zelan elkartu zineten?

Virginia: Gu Facebook bidez elkartu ginen, «RiotGirls en busca de grupos y proyectos» orrialdean iragarkia ipini nuen, nire estiloak zeintzuk ziren zehaztuz eta talde bat osatzeko gogoz nengoela esanez; Vicky eta Jone agertu ziren lehenak, ostean, Maria.

Zergatik Oi! estiloa?

Virginia: Ba, egia esan, apur bat modu automatikoan atera zen, hori entzuten genuen eta... Egia da, denborarekin, ebo-luzio bat eduki dugula talde moduan, estilo desberdinetatik zertxobait hartuz, baina, hasierako ideia hori izan zen.

Estatu-mailan emakumezkoen Oi! talde bakarra edo bakarrenetarikoa izanda, zelakoa da egoera?

Jone: Orokorrean txarra; baina, egia da, orain dela 30 urtekoarekin konparatuta, zerbait hobetu dela, lehen ez zegoen Oi! estiloan emakumeen talderik; eta, egia da, Hexen ostean, ikusten hasi garela 2-3 talderen sorkuntza...



Maria Arriagak, Vicky L. Guevarak, Jone Gonzálezek, Virginia Pizarrok eta Ainhoa Unzuetak osatzen dute Hexen taldea. © HEXEN

Maria: Nik uste emakumearen presentzia badagoela baina gehiago publikoan eta atzean, askorik mugitu gabe, eta baita diskoen portadetan, baina titiak erakusten... portadetan *skingirlak* euren itxura landuarekin... Bakarrik ikusi behar da emakumeak *Skingirl* ezizena dutela eta gizonak *Skinhead* eta ez *Skinboy*... Zoritzarrez eszena oso maskulinizatuta dago, *rollo* makarra guztietan bezala...

Nazioartetik eskaera nahiko izan dituzue hain talde gaztea izateko, eta daborduko atzerrira (Espainia, Frantzia, Alemania laster...) irteera edo emanaldi batzuk egin dituzue. Zer dela eta? Zelan lortu dituzue kontzertuak? Zer-zelako eskaerak dira?

Jone: Madrilera, Bartzelonara, Alacantera, Castellóra... mugitu gara lagunak edo ezagunak zirelako eta gehien-goetan talde berri bat ginelako, eta are gehiago nesken talde bat ginelako Oi! Munduan. Gure EPA atera genuenean, kristoren arrakasta izan zuen eta hor hasi ziren deitzen. Eta Frantziara eta Alemaniara ere bai, eurak deituta.

Maria: Eta zeren truke, bada... egia esan, kanpora goazenean, guk argi daukagu kristoren aukera dela, eta, askotan dirua galtzen dugu, baina, itzela izaten da. Azkenean plaza handietan jotzeko apustua egin behar da, taldea ikusarazteko.

Dagoeneko EP formatuan argitaratutako disko bat daukazu, nahiko harrera ona izan duena. Zelan izan da horren grabaketaren esperientzia? Zergatik EP formatua eta ez CDa? Etorkizun hurbilean beste bat grabatzeko asmorik?

Maria: Talde moduan egin dugun lehenengo grabaketa izateko oso esperientzia ona izan dela esango nuke.

Jone: Birurekin Bergaran grabatu genuen eta oso gustura ibili ginen, gainera, EPak oso harrera ona izan du, guztiak saldu ditugu eta...

Virginia: EPari dagokionez, eszena honetan CDak baino hobeto mugitzen dira, eta soinua hobe dela argi dago.

Maria: CDak ez dauka baliorik... galtzen dira, jendeak nahiago du Internetetik jaitsi eta USBan sartu... eta EP bat edukitzea altxor moduko bat da.

Jone: Gainera, gure musika entzun ahal izateko Bandcamp daukagu, guztiz doakoa dena.

Maria: Eta aurrerapen moduan, gu txi barru, abenduan, grabatzen hasiko gara, Zarata estudioan.

Managerrik ez daukazu, ezta zigilurik ere... Gaur egun indarra hartzen ari diren musika zigilu independentekin eta *do it your self* jarrerarekin, zein da zuen ikuspuntua?

Jone: *Do it your self* oso ondo ikusten dut, nigatik Hexen Records egingo nuke, eta guk dena ordaintzea, edo zigilu txiki batekin elkarri lagunduz. Baina, eztabaida prozesuan gaude...

Maria: Azkenean gustuko duguna jotea da eta beste denagaz denbora lar galtzen da.

Virginia: Askotan egoera ezberdinak errazteko ondo legoke pertsona bat edukitzea, baina, gure batzarrekin ere ondo konpontzen gara. ◀

HEXEN (2015-2017)



Taldekideak

• Maria (gitarra), Vicky (gitarra), Jone (baxua), Ainhoa (bateria) eta Virginia (abeslaria).

Diskoak

• Die Frauenjagd (2016)

Hurrengo kontzertuak

• Azaroak 10-11-12, Alemania.

Erreferentziako 5 talde

• The Gits, Noise!, Combat 77, Bishopsgreen, 4 Promile.

Musika-estiloa:

• Oi! / street punka

«Euskaraz zer ikusi eta zer erosi badago komikigintzan»

Komikia: el cómic vasco 1975-2017 erakusketa urriaren 28ra arte ikusi ahal izango da, Bilboko Foru Liburutegiko areto nagusian. Mikel Begoña sopeloztarra eta Kike Infame bilbotarra dira Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako esposizinoaren komisarioak. Sopelakoak azaldu duenez, Euskal Herriko komikigintzak azkeneko 42 urteetan izan duen bilakaera ikus daiteke bertan, astelehenetik zapatara; sarrera, doan.



TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Zeinek egin zizun *Komikia: el cómic vasco 1975-2017* erakusketan parte hartzeko gonbita?

Erakusketaren komisarioa ere den Kike Infame etorri zen nigana, proiektuagaz. Berari eskaini zioten egitea eta, gero, horrek niri elkarregaz egiteko aukera eman zidan; batez ere euskarazko komikiaz arduratzeko gonbita egin zidan. Izan ere, orain bost urte *Komikeri* izena daukan blogagaz jarri nintzen: bertan, euskaraz zer argitaratzen den aztertzen dut.

Zer helburu dauka erakusketak?

Erakusketak, logikoa denez, erakustea dauka helburu. Kar, kar. Bilboko Foru Liburutegiko erakusketaren areto nagusian dago: panelen bitartez, 1975etik hona euskal komikigintzak egin duen ibilbidea ikus daiteke. Aukeraketa bat da, noski! Ez da den-dena agertzen paneletan; baina, bai, gure ustez, azpimarragarriagoak diren komikiak. Horretaz aparte, katalogo bat argitaratu dugu; nahiko mardula da. Liburu horrek 150 orrialde dauzka: hamarkadaz hamarkada euskal komikigintzaren ildo nagusiak zeintzuk diren azaltzen dugu. Gehiago sakontzeko aukera eman digu erakusketaren katalogoak.

Zeintzuk dira erakusketa baten komisarioak egiten dituen lanak?

Kike Infame eta biok gara komisarioak: erakusketa aurkezteaz arduratzen gara. Hala ere, aipatu behar dut, gehienbat Kike arduratu dela programazio paralelo bat osatzen: egitarau horren barruan, tailerrak

eta berbaldiak egiten gabiltza. Oraindino geratzen da Amaia Ballesterosek eman behar duen berbaldia: ilustrazioei buruz arituko da, urriaren 25ean. Josune Muñozek, berriz, emakumeak euskal komikigintzan duen lekuaz hitz egin zuen, urriaren 17an. Azkenik, euskarazko komikigintzaren historia aztertu nuen nik, urriaren 3an egindako solasaldian. Erakusketa

“Gazteek manga-komikiak dituzte gogoko; baina, zoritxarrez, euskaraz ez dago estilo horretako argitalpenik”

urriaren 28ra arte zabalik egongo da, astelehenetik barikura, 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era; eta zapatuetan, berriz, 10:30etik 13:00etara. Sarrera doakoa da.

Erakusketa ikusteaz gainera, tailerretan eta berbaldietan parte hartzen dabiltza komikizaleak?

Bai. Nahiko ondo doa. Gainera, komunikabideen aldetik interes nahikoa sortu du ekimenak; daborduko ez dakit zenbat aldizkaritan eta irratitan eskaini ditugun elkarrizketak. Bestalde, gure artean euskal komikigintzak indarrak daukan edo ez... Esan daite-

ke garai hobeak izan dituela. Ni umea nintzenean, komikiak ziren gaur egungo bideo-jokoen lekua betetzen zutenak. Gero, helduentzako komikigintza ere sortu zen, 80ko hamarkadan; gaur egun, gehien irakurtzen diren komikiak horiexek dira. Umeenak baino, helduentzako komikiak gehiago irakurtzen dira.

Gazteek euskal komikiak irakurtzen dituzte?

Gazteen artean gehien funtzionatzen duen komiki-mota manga da; horrek hainbat jarraitzaile dauzka atzean. Baina, zoritxarrez, euskaraz ez dago manga-estiloko komikirik. Euskal komikigintzak daukan hutsuneetariko bat da. Gaztelaniaz badago; itzulpenak dira gehienbat, manga Japoniatik datorrelako.

Ez duzu uste, euskal komikigintzari lekua egin beharrean, atzerriko komikiei lehentasuna ematen zaiela azoketan?

Getxon, adibidez, banatuta daude. Uste dut asteburu bitan egoten dela: batean, manga-azoka; eta bestean, euskal komikiari lekua egiten diote. Nire ustez, erabaki ona izan da. Ezin dugu ahaztu Getxokoa estatu-mailan dagoen azoka onenetariko bat dela. Bada, azken urteotan, *Ipurbeltzen* standaren inguruan, euskal komikigintzari lekua egin diote, Areatako Xake plazan ipini ohi duten karpan. Harriet Ediciones argitaletxeak ere bere postutxoa izaten du; euskarazko komikiak plazaratzen ditu. Gainera, nahiko harreman ona dago euskarazko komikiak argitaratzen duten egileen artean. Azken finean, ge-



txoko Komiki Azoka elkarteko aitzakia besterik ez da: standetan egoteaz aparte, elkarregaz joaten gara afaltzera... Lehen difusoagoa zen euskal komikigintza; bakoitza bere aldetik zebilen eta ez zegoen horrenbesteko harremanik.

Euskarazko zenbat komiki argitaratzen dira orain?

Gaur egun, hamabost bat komiki argitaratzen dira euskaraz, urtero; eta orain badago jendaurrean batuta gaudela erakusteko aukera. Pauso bat izan da. Beti kili-kolo ibili da euskal komikigintza; baina, azken urteotan, euskarazko produkzioa dagoela erakutsi dugu; eta, salmenten aldetik, horietako batzuk ondo funtzionatzen dutela ere bai. Jendeari argi esan behar zaio euskaraz zer ikusi eta zer erosi badaukala. Bestalde, euskaraz lan egiten ausartzen ez diren argitaletxe horiei jakinarazi behar zaie saldu ere saldu egiten dela, produktua ondo jagoten bada. Aurrepausoak egon dira.

Zelakoa izan da azken 42 urteetan Euskal Herriko komikigintzak jasandako eraldaketa?

Ia komikigintzarik ez zegoen 1975era arte; zeozer egon zen 30eko hamarkadan, baina gerrak errotik moztu zuen dena. 1973ra arte ez ziren euskarazko komikiak berriro aurrera irten. Besteak beste, gerra ostean, *Panpin* deitzen zen komikia sortu zen; ia zortzi-bederatzi urtez argitaratu zuten. Baina, euskal komikigintzak izan duen arorik onena 1975etik 1990era arte izan da gutxi gorabehera; euskal komikigintza-

ren urrezko aroa deitzen diogu horri. Izan ere, 1968ra arte euskal komikia gogor astindu zuen zentsurak; *Fragaren Legea* zeritzona egon zen ordura arte indarrean, eta hori kendu zen arte, ez zen argitalpen berririk atera. Alde batetik, aldizkari berriak sortu ziren, eta egunkariak ere bai. Horietan denetan umore grafikoa agertuko da; adibidez, *Zakilizut* agertu zen

“ Gaur egun, hamabost bat komiki argitaratzen dira euskaraz; saldu ere ondo saltzen dira horietako batzuk ”

Egin egunkarian. Baina, *Punto y Hora de Euskalherria*, *Garaia*, *Ere* aldizkarietan, horietan denetan ere komikiak argitaratzen ziren. Bestalde, umeentzako aldizkari bi sortu ziren, 1978an: *Ipurbeltz* eta *Kil-kili*. Horretaz aparte, hainbat esperimentu egin ziren: barbarako, Donostian sortu zen *Gomikia* deitzen zen helduentzako fanzineen antzeko argitalpen bat. Hala ere, hiru zenbaki baino ez zituzten atera. Komikiakaz batera, argitaletxeak sortuko dira: Tartalo, Erein eta horiek denek albumak argitaratuko dituzte. Esan bezala, euskal komikigintzan urrezko aroa izan zen, 1975etik 1990era arteko aroa.

Orduetik hona zelakoa izan da euskarazko komikiaren garapena?

Gorabeherak egon dira: 80ko hamarkada nahiko ona izan zen; baina, gero, nazioarte-mailan krisialdia sortu zen, 1992an edo. Gurean, *Habeiko Mik* argitalpenak aukera ematen zien marrazkilariei euren lanak ondo saltzeko; ondo ordaintzen zuten. Baina, tamalez, itxi egin behar izan zuten, 1992an. Nazioarte-mailan ere mota horretako hainbat aldizkari desagertu ziren.

Nobela grafikoak indarra hartu zuen orduan.

Bai. Geroago nobela grafikoa deituko zena hasi zen indarra hartzen 2000ra arte. Modu libreago batean egiten den komikia da nobela grafikoa; egileek erabakitzen dute zelakoa izango den euren komikia, formatuaren, edukiaren eta luzeraren aldetik. Gauza berriak esperimentatzeko aukera ematen du argitalpen-mota horrek.

Gure artean, Astiberri argitaletxea sortu zen, Bilbon; estatu-mailan komikigintzako enpresa esanguratsuenetako bat izatera heldu da. Horrek ere nobela grafikoa lantzen du. Gainera, Euskal Herritik kanpo hoberen saltzen diren komikiak euskarara itzultzen ditu Astiberrik: *Pilula urdinak*, *Zimurrak*, *Maria eta biok* eta beste hainbat. Txalaparta argitaletxeari dagokionez, ez du askorik argitaratu; baina, badabil azken urteetan nahiko animatuta. Urte bitik behin edo... batzuetan, urteren batean nobela grafiko estiloko komiki bi argitaratu ditu: barbarako, Maite Gurruixagaren *Habiak*, Mattin Martiarenaren *Zarrakamalda* eta horrelakoak.

Gaur egun, euskaraz leku dauka komikigintzan?

Besteak beste, Frantzia, sumatzen ari dira komikien gehiegizko produkzioa dagoela eta krisialdi bat datorrela; asko sortzen da, eta egileei ez zaie ordaintzen egiten duten lanaren araberrako soldata. Euskaraz, ordea, abantaila daukagula uste dut: euskarazko komikiak argitaratzen dira urtero; irakurleen esparrua landu behar dugu orain. Gainera, sekulako salmentak egin barik, ordaindu beharrekoa ordaintzen zaie marrazkilariei. Euskarazko komikiak konpetentziarik ez dauka: Frantzia edo bestelako herri batean krisialdia egon arren, Harriet eta Txalaparta bezalako argitaletxeek oraindino badaukate garatzeko bidean dagoen merkatu propio bat.

Beraz, esan daiteke etorkizuna daukala euskarazko komikigintzak?

Bai. Batez ere bertoko gaiak direnean, oso ondo saltzen dira euskarazko komikiak. Adibidez, Harrietek, *Justin Hiriart* komikiagaz, etekin handiak izan ditu; bale-ehiztariez dihardu argitalpenak. 2000ko hamarkadan agertu zen *Gartxot* ere oso ondo saldu zen. *Xabiroi* euskarazko komiki-aldizkaria ere arrakastatsu dabil... Nire ustez, etorkizuna badago.

Non izango da euskarazko komikigileen hurrengo topaketa?

Parrapean Komiki Egunak jaialdiaren barruan, euskarazko komiki-azokaren laugarren edizioa egingo dugu, zapatu honetan, urriaren 21ean; goizeko 11:00etan hasiko da, Santutxuko Karmelo plazan. Urtean kaleratzen diren komiki gehienak bertan aurkezten dira: besteak beste, Harriet argitaletxea, Asisko Urmeneta eta Julen Rivas egongo dira, euren lan berriak aurkezten. ◀



Bost eta zazpi metro bitarteko olatuen zain daude. © GETXOKO UDALA

Galea, olatutzarren zain

Galeako olatu handien surf-txapelketarako itxarote-epa zabaldu dute, Munduko Olatu Handien Zirkuitutik kanpo.

Joan den domekan ireki zuten Galeako olatu handien surf-txapelketa egiteko itxaronaldia; datoren martxoaren 31ra arte egongo da zabalik. Azken urte biotan ez denez proba egin, eta Munduko Surf Ligak (WSL) finantziario-arazoak izan dituzte, txapelketa olatu handien munduko zirkuitutik ateratzea erabaki zuten antolaketa-batzordeak, berri-

ro ere probak hasierako espiritua berreskura dezan. Modu berean, erabaki horrek ahalbidetuko die antolatzaileei askatasun handiagoa izatea, data egokia aukeratzeko. Hala, hamabigarren edizioan itxarote-epa hilabete luzeagoa da. Horrezkero, aukera handiagoak daude txapelketa bertan behera ez geratzeko.

Dozena bi surflari

Antolakuntzaren izenean berba egin du Joki Arroyok, berak adierazi duenez, aldaketak egin badituzte ere, «olatuaren mailari eutsi diogu, eta jakina, ekitaldiaren mailari ere bai. Gonbidapen bitarteko txapelketa bihurtu gara, baina nazioarteko maila duena.

Modu autonomoan, txapelketaren diseinua eta marrazketa gure eskuetan dira berriro».

Partaideei dagokienez, 24 surflari lehiatuko dira, aurreikuspenen arabera; horien erdia nazioartekoak dira, eta beste erdia, ostera, euskal herritarrek. Aurten ere, Getxon izango da Twiggy Baker hegoafrikarra. Baker munduko txapelduna da modalitate horretan eta badaki zer den Galean irabaztea. Munduko hamar surflari onenetako beste kide batzuen baieztapena jaso du antolakuntzak daborduko, tartean Jaimie Mitchell australiarrena. Surfaren muturreko modalitate horretako beste lehiakide handia da Mitchell. Eurekaz izango dira Nic Lamb kalifor-

niarra, egin zen azken edizioaren txapelduna; Joao de Macedo portugesa; Andrew Cotton ingelesa; Manuel Lezcano eta Alex Zirque kanariarrak; eta Jerome Sahyoun marokoarra. Hain zuzen ere, surflari horiek laster Getxora etortzea espero dute antolatzaileek, olatua probatzera eta antolatzaileak eta bertoko surflariak elkartzera.

Antolatzaileek gura dute txapelketa «euskal surflari handientzako txapelketa» izatea, Munduko Surf Ligarako bidean. Gonbidatuetako bat da Adrián Fernández de Valderrama bizkaitarra. Berak nabarmendu duenez, Galeako txapelketak Getxo «olatu handien surfaren munduko mapan kokatu du». Izan ere, bere ustean, Galeako «olatu izugarria da, mundu mailakoa, indar handikoa eta oso luzea, munduko arteen beldur eta errespetu gehien ematen didanetako bat».

Aurreko urteotan legez, olatuen parteak baldintza egokiak iragarriko dituzten, segurtasun-talde bat ipiniko dute, eta dei-abisuak bidaliko dituzte. Hala, txapelketa hasi baino bost egun lehenago ezagutaraziko dute alerta horia, eta hiru egun lehenago, ostera, irrikaz espero duten alerta berdea. Eguna iritsitakoan, Getxo Kirolak erakundeak anezka-autobus bat jarriko du jendearentzat, Bidezbalgo metro-geltokia eta Galea lotuko dituen.

Imanol Landa Getxoko alkateak nabarmendu du antolatzaileen eta «bertako surf-komunitatearen konpromisoa eta lan bikaina». Alkateak eskerrak eman dizkio komunitate osoari, egindako lan horregatik: «hari zor baitiogu txapelketa nazioartean hain ospetsu bihurtu izana. Badakigu, gainera, Munduko Surf Ligarekiko harremana bikaina dela eta azken urteotan Getxon lehiatu diren mundu-mailako surflariak proba honen aldeko apustua egiten segitzen dutela». ◀

Leioa Waterpolok arrakasta handiz ospatu du eguna

Joan den zapatuan ospatu zuten Leioa Waterpolo Eguna. Urteroko festa horretan, Boulevardean batu ziren klubeko kideak, senideak eta lagunak. Eguerdian, klubeko talde denak aurkeztu zituzten, banan-banan. Ondoren familia-argazkia atera zuten, 200 kirolariakaz. Kirol-elkarteak banatu zituen 29 produktu-sorta; Leioako dendariak klubari aurretik eman zituzten produktuak, Leioa Waterpolo Eguna babesteko asmoz. Klubak eskertu ditu «bertaratutako parte-hartze eta gogo handiak» eta «boluntario denen ahalegin ordainezina». «Iazko maila oso altua» gainditu da aurten. ◀

Getxo, bigarren, EAEko ur azpiko arrantza-lehian

Orion lehiatu zen Euskadiko klubaren arteko ur azpiko arrantza-txapelketa, joan den urriaren 8an. Bertan, Bermeoko Izaro Sub taldeak lortu zuen hirugarren urtez segidan txapelak janztea. Horretarako, 53.965 puntu metatu zituzten bermeotarrek, 25 arrain batuta. Bigarren geratu zen Getxoko taldea, hiru kide lortutako 51.460 puntugaz. Podiuma SAS Real Sociedad klubaren laugarren taldeak osatu zuen, 43.590 puntugaz. Txapelketan arrantzatutako ale denak oparitu zituzten Donostiako Esperanza Latina irabazi asmorik gabeko etorkin-elkarteari. ◀



Txinako Silver Dragon surf-proba irabazi dute Eneko Acero getxoztarrak eta Natxo Gonzalez plentziarrak. Hangzhou hiriko Qiantang ibaian hartu zuten munduko marea-olaturik handiena. Bederatzi metroko uhinak 40 kilometro orduko abiadura har dezake. © SILVER DRAGON

Isasi eta Alonso, pista-txapeldun

Ziortza Isasik, Sopelako emakumeen txirrindularitza-taldekako kidea, urrezko domina bat eta brontzezko bi irabazi zituen Espainiako Pista Txirrindularitza Txapelketan aurreko asteakabuan, Mallorcan. Sandra Alonsok, ostera, urrezko eta brontzezko domina bana lortu zituen. Torreviejakoa 23 urte azpiko mailan estreinatu da aurten Bioracer-Elkar Kirolak taldeagaz. Azkenik, Maddi Amondarain Sopela-Ugeraga taldeko txirrindulari gipuzkoarrak 14. postua erdietsi zuen scratch modalitateko proban.

Ziortza Isasi txirrindulari elorriarrak urrezko domina irabazi zuen taldekako jazarpen-proban eta brontzez-

ko beste garaikur bi eskuratu zituen madison- eta taldekako abiadura-probetan. Isasi Sopelako kidea izateaz gainera Euskotrek-Euskadi pista-taldean ere lehiatzen da.

Elkar Kirolak taldetik kanpo

Sandra Alonso, bere aldetik, jazarpen-probako finalean nagusitu zen maila absolutuan; taldekakoan, ostera, brontzea eskuratu zuen, Valentziako selekzioaren taldean. Datorren denboraldian, Alonsok ez du segituko Elkar Kirolak eskualdeko txirrindularitza-eskolaren taldeagaz. Horren ordez, Bizkaia-Durangok eta Euskadi-Muriasek sortutako talde berrian lehiatuko da valentziarra. ◀



Isasi eta Alonso podiumean, taldekako jazarpen-modalitatean. © RFECD



Castroviejok azpimarratu du Sky «taldearen indarra». © MOVISTAR TEAM

Castroviejo, Nazioetako Erlojupekoan, podiuma

Joan den domekan, Jonathan Castroviejo txirrindulari itzubaltzetarrak hirugarren postuan amaitu zuen Nazioetako Erlojupekoa lasterketa ezaguna, iaz baino maila bat beherrago eginda. Castroviejok 01.01.23,380 denbora behar izan zuen Frantziako Vendée departamentuko 49,7 kilometroko ibilbidea betetzeko. Zirkuituan, Alouetteseko mendatea igo behar izan zuten; modu berean, euriak zaildu egin zituen herrietako hiri-tarteak. Edozein kasuan, Martin Toft Madsen txirrindulari danimarkarrak minutu bat eta 25 segundoko abantaila atera zion itzubaltzetarrari. Gainera, Cas-

troviejo hiru segundo eskasera gelditu zen podiumeko bigarren mailatik; Mikel Bjerg munduko 23 urtez azpiko txapeldunak hartu zuen leku hori. Uribe Kostako txirrindulariarentzat denboraldiko azken lasterketa izan zen Nazioetako Erlojupekoa. Horregaz batera, Movistar taldeagaz lehiatu zuen azken proba izan zen domekakoa. Sei urteren ostean, datorren denboraldian, Sky talde britaniarrean jardungo du itzubaltzetarrak, Chris Froomegaz. Castroviejok 30 urte ditu, eta Movistarraren, Euskaltelen eta Seguros Bilbaon militatu du. Erlojupeko Europako txapelduna izan zen iaz. ◀

Bost dozena pilotarik ekingo diote kaiolako banakakoari

Antolatzaileek zabaldu dutenez, 66 pilotarik izena eman dute Emakume Master Cup lau t'erdiko eskuz banakako aurreneko txapelketan lehiatzeko. Horietatik 16 emakumezko elite-mailan jardungo dute, tartean 3 bizkaitarrek. Lehen mailari dagokionez, 50 pilotarik jokatu dute kategoria horretan. Ia erdia, 23, bizkaitarrak izango dira eta, besteak beste, Mexikok, Aragoik, Kataluniak eta Errioxak euren ordezkariak izango dituzte. Ipar Euskal Herriko jokalaririk ez da egongo. Lehiaketa zapatu honetan hasiko da, Santurtzin, eta finalak Sopelako udal-pilotalekuan jokatu dira, datorren abenduaren 6an. Iker Amarika txapelketaren zuzendari tek-

nikoak azaldu duenez, Santurtziko frontoian pilota-jaialdia egingo dute. Kirol-festibal horretan, 15 pilotarik parte hartuko dute, denak lehenengo mailako kategorian; euren artean eskualdeko ez da izango. Bestalde, Larrabatzuko Txokoa pilotariek lau ordezkari izango dituzte kaiolako lehenengo kanporaketan. Elkarre horregaz lehiatu izan da Jone Aranguren Perez pilotari algortarra, baina berak ez du txapelketan parte hartuko, «lanez gainezka» dabil eta, beharrez eta ikasketetan. Joan den urtarrean, kaiolaren binakako kanporaketetan jardun zuen Aranguren, Jone Zabala azkoitiarragaz batera. ◀

info+: Emakumemastercup.eus



Antolatzaileek «uste baino askoz pilotari gehiagok» eman dute izena. © EMAKUME MASTER CUP

Gaztetxoen bizikleta- jaialdia, daborduko prest



Helduek ez dute festan izena ematerik, adingabeko bategaz edo bigaz joan ezean. © ELKAR KIROLAK

Eskualdeko txirrindulari gazteen eguna bihurtu da urteen poderioz Umeen Bizikleta Festa. Elkar Kirolak txirrindularitza-eskolaren ekimen ikusgarriena da.

Elkar Kirolak txirrindulari-klubak antolatuko du Umeen Bizikleta Festaren XI. edizioa, domeka honetan, urriaren 22an. Ehunka ume, gazte zein heldu espero dituzte Berangoko, Erandioko eta Leioako udalek sortutako elkarte horretako kideek. Goizeko 11:00etan, bizikleta-ibilbidea hasiko da Erandioko Obieta kalean, eta Leioako bulebarran anoa-geldiunea egin ostean, Be-

rangoko Moreaga parkean amaituko da, 13:30ak aldera. Bertan, txirrindulariei opariak eta mokadutxoak banatuko dizkiete. Modu berean, neska-mutilentzako hamaika jarduera izango da egun osoan, berbarako: bizikleta konpontzeko ikastaroak, quad ibilgailuak, puzgarriak eta ondo pasatzeko beste hainbat ekintza. Bits-festa egingo dute 13:30ean, eguraldi egokia izanez gero. Ondoren, 15:00etan, dis-

ko-festa izango dute Dj Xaiborregaz. 16:30etik aurrera, taldeko ginkana-lehiaketa izango da, txokolate-edanaren eta festa-amaieraren aurretik.

Umeen Bizikleta Festa doan parte har daiteke; oster, hori bai, alde aurretik izena ematea beharrezkoa da. Gura dutenek informazioa eskatu ahal dute Elkar Kirolak txirrindulari-eskolaren gainean. ◀

izen-ematea: Ubfesta.org / 946 682 143

Arenasek AEBetan ikasteko bekak lortu ditu

Arenas futbol-klubak eta Sports Unlimited enpresak hitzarmen bat sinatu dute, kirol-elkartearen harrobiko jokalariek gazteei begira. Futbolari horiek aukeran izango dute AEBetako 400 unibertsitatearen batean goi-mailako ikasketak egiteko, lau edo bost urtean, bekadun izanda. Karrera ikasi bitartean, futboleko jokatzen segituko lukete, «baldintzarik onenetan», Arenasek zabaldu duenez. Bekak estaliko lituzke maila-profesionaleko futbol-praktikak: arropa, materiala, hegazkin-bidaia, hotelak eta instalazioak. Gainera, beka egonaldia eta ikasketen gastuak ere bere gain hartuko lituzke. Unibertsitate-zentroen gaineko informazioa eta beka lortzeko izapide denak erraztuko lituzke Sports Unlimited enpresak. Hala, Arenasek «aitzindari-tzat» jo du bere burua, jokalariei horrelako eskaintza egiteagatik. Hitzarmena denboraldi baterako da, baina luza liteke datorren ekainean. ◀



Aurretik izena eman beharra dago.

Erandio Ezagutuz herri-martxa, domeka honetan

Erandio Ezagutuz herri-martxaren laugarren edizioa egingo dute datorren domekan, urriaren 22an. Ibilbidea goizeko 09:30ean hasiko da. Astrabuduko Josu Murueta plazan batuko dira kirolzale batzuk, eta Altzagako Irailaren 23a plazan, besteak. Denak elkartuko dira Arriaga auzoko eskolan, 10:00ak aldera. Bertatik, Erandioikora joango dira, Martiartuko dorretxean txangoa amaitzeko. Zortzi kilometroko ibilbidea zailtasun ertainekoa da. Buelta autobusez egiteko aukera egongo da. ◀

izen-ematea: 944 890 140

**URIBE KOSTAKO
MINTZODROMOA**
EUSKARAREN EGOERA URIBE KOSTAN ETA ZURE HERRIAN

SOPELAN, URRIAREN 26AN
UDALETXEKO PLAZAN
GOIZEAN 11:00-13:00
ARRATSALDEAN 18:00-20:00

IZENA EMATEKO:
- URIBE KOSTAKO WEB ORRIALDEAN INPRIMAKIA BETEZ
- TELEFONOZ: 617 336 604
- EGUNEAN BERTAN LEHENAGO HURBILDUZ

URIBE KOSTAKO  UK Berbalagun 

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

STOCK EUSKADIren ekimenez, azaroko lehen aste-akabuko azokarako 4 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Stock Euskadi azokarako sarrera bikoitza lortu gura baduzu, urriaren 29a (domeka) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Urriko saria

Pizza erraldoia eta edari bi, 2 lagunentzat



Bostak tabernari esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean. Zozketan parte hartzeko, bidali urriaren 31 (martitzena) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuak zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

			8	3		1	6
3	8						4
				6			
	6	3				9	
		5	3				
1				9	4		
				1			5
		4	2		6		9
8	1					2	

Soluzioa

7	9	2	8	7	5	6	1	8
1	6	8	9	2	7	4	3	5
3	5	4	8	1	6	2	7	9
5	3	7	4	6	9	8	2	1
2	7	9	1	8	3	5	6	7
8	1	6	2	5	7	3	9	4
6	8	3	7	9	4	1	5	2
4	7	5	2	1	6	8	9	3
9	5	1	2	3	8	7	4	6

+ Guardiako farmaziak, hilaren 19tik 25era

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Barikuan, 09:00-13:30, 16:30-19:30.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

GARCIA. José Luis Goioaga et., 25. ALTZAGA. 944 671 496. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Zapatuan, 09:00-22:00.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik astelehenerako 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egutegia, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egutegia, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Egutegia, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA.

Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00; martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Martitzenean, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Egutegia, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Egutegia eta zapatuan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artatza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egutegia, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00-13:30; domekan 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; egutegia, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; egutegia, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00; egutegia, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Ategorri, 50 urte geroago

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA



Erandio futbol-taldeak Ategorri futbol-zelai berriaren 50. urtemuga ospatu du. Zelaia zaharkituta dago, eta bertako belar arruntaren mantenuak gastu latza bilakatu da klubarentzat. Udala eta kirol-elkartea bat datoz konponbidea karua izango dela esatean, baina oraindino ez dute behin betiko konponbiderik aurreikusi.

Joan den urriaren 13an, 50 urte bete ziren gaur egungo Ategorri futbol-zelaia estreinatu zenetik. Urtemugaren aurreko egunean, egunean, Erandio Kirol Elkartek urteurren biribil hori ospatu zuen, Zallaren aurkako ohorezko mailako partidaren aurretik (lehia 0-0 berdinketaz amaitu zen).

Hitzordu horretan, Ategorrin izan ziren dozenaka bazkide, zuzendaritzako hamaika kide eta kide ohi, Erandio Kirol eta Hirigintza zinegotziak, Bizkaiko eta Euskadiko federazioen ordezkariak, mendeurrena bete duten Bizkaiko futbol-taldeen ordezkariak, eta Ategorri eraiki zuen Viconsan enpresako ardura-dunak, besteak beste. Denak eseri ziren egurrezko harmailetan, aspaldi San Mames futbol-zelai zaharretik erretiratu zituztenak. Harmaila horietatik, zale zuri-urdinek gorde zuten minutu bateko isilunea, Fernando Martínez omenez. Erandio kirolaren entrenatzaile ohiak joan den irailaren bukaeran zendu zen.

Urteurren-ekitaldia ospakizun bat izan zen, tar-te hunkigarri eta nostalgiko batzuk bizi ziren arren. Hala, «merezitako omenaldia» egin zieten «klubak historia egin zezan ahalbidetu zuten jokalariei, zuzendaritza-kideei, bazkideei eta zaletuei», Marina García azaldu zuenez. García Erandio Kirol Elkarteko presidentea da joan den 2015etik; kluba zuzendu duen lehenengo emakumea da, elkartek bete dituen 102 urtean. «Harro» dago «Erandio klubeko kide izateaz». 50. urteurren-ekitaldian aurreko presidentek egoteko aukera izan zuen; «euren argazkiak erakutsi zizkidaten, orain dela 50 urtekoak. Orduan jakin izan nuen Erandiozalea dena bizitza osorako dela. Izugarria da!» laburbildu du García.

Ekitaldian, beste emakume batek ordezkatu zituen gaur egungo Ategorri futbol-zelaia posible egin zuten Erandio kirol-komunitateko kide denak: Txelo Ezkerrak jaso zituen eurentzat izan ziren aurrekoa eta lore-sorta. Modu berean, euren izenean egin zuen ohorezko sakea, txalo-zaparrada artean. Izan ere, Ezkerrak gertu-gertutik bizi izan zituen Ategorriren eta Erandio kirol-klubaren gorabeherak, hamarkadaz hamarkada. Orain dela urte bi zendu zen bere senarra, Luis Mari Txolo Zuazo, 50 urtez kirol-elkartegaz lotura izan zuena: jokalaria izan zen,

Ategorri futbol-zelaian belar artifiziala ipintzeak 300.000 bat euroko aurrekontua dauka

zuzendaritzako hainbat ardura bete zituen eta klubeko presidente ere izan zen. «Asko sufritzen zuen, berotzen zen; ikaragarria zen Erandio kirol-klubaren zuzendaritza, labankada bat eman izan baliote legezkoa zen. Sekula ez zen ohitu Erandio kirol-klubaren zuzendaritzarekin», gogoan du alargunak. Joan den martxoan, Bizkaiko Futbol Federazioak hilondoko omenaldia egin zion Zuazori. Txolo ez zen izan Erandio kirol-klubaren zuzendaritza-ardura hartu zion. Joan den egunean, Txelo Ezkerrak «egundoko zirrarez» bizi izan zuen ekitaldia; akorduan izan zuen Ategorri berria eraiki zuteneko garaia: «denok beharrean ibili ginen bertan». Izan

ere, Ategorri berria 1967ko urriaren 13an estreinatu zenean, klubak 18 urte zeroatzen futbol-zelai barik, atzetik aurrera ibiltzen, beste 10 klubek zelaietatik. Aurretik, 1918tik 1949ra, Erandio kirol-klubak beste futbol-zelai bat izan zuen: lehenengo Ategorri, itsasadarraren alboan, Laureano Jadok utzitako lurretan.

1964-65 denboraldian hasi ziren futbol-zelai berria eraikitze lanak, José María Fruniz presidentek gidatuz. Txetxu Aurrekoetxeak gidatuz, klubak lursail bat zeukan gaur egungo futbol-zelaia dagoen lekuan zegoen ibarrean, eta «bertan deskargatzen ziren, doan, Deustuko Kanalaren eraikuntzako indusketek eragindako hondakinak». Aurrekoetxea garai hartako zuzendaritza-taldeko idazkaria izan zen, eta ondo ezagutu zuen obra: «betetze-lana egitean ez zen kontuan hartu zelan egin beharra zegoen, ez baitzen trinkotze-beharrik egin; isurketa-urak ez ziren egoki batu... Hondakinak kontrol barik ipini ziren. Horrek arazo teknikoak ekarri zituen geroago, zelaia eraikitzean». Gainera, futbol-taldeak beste arazo bati egin behar izan zion aurre; Deustuko kanalaren jarduten zuten eraikuntza-enpresak jabetu ziren hondakin erabilpenaz eta klubari materialak ordaintzea eskatu zioten. Horren aurrean, Erandio kirol-elkartek betetzea gelditu eta Area Operazioa martxan ipini zuen. Herritarrei eskatu zieten gura zizuten area-metro kubikoak erosteko dirua ipin zezaten. Eraikitzea finantzatzen lagundu ondoren, txarto egindakoa zuzentzea izan zen lehentasuna. Arkitekto bat lotu eta Italiara begira ipini zen kluba, bertako errepideetan mendoitzak eusteko erabiltzen zuten teknika Ategorri berrira ekarri guran. Baina proiektu-



Joan den asteko ekitaldian eta duela 50 urteko inaugurazioan Erandiozaleak jai-giroan murgildu ziren. HODEI TORRES - © ERANDIO KIROL ELKARTEA

tuak ez zuen norabide hori hartu. Horren ordez, Aurrekoetxeak oroitu duenez, Bilboko udaletxera joan ziren eta bertan ezagutu zuten lursailen birkalifikatzeak zelan egiten ziren. Hala, Bilboko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) aldaketa bat egitea eskatu zuten, klubaren lursailen etxebizitzak eraiki ahal izateko. Udalak aldaketa onartu zuen eta futbol-zelaia eraikitzeak soberan zituzten lurak eraikuntza enpresa batez negoziatu zituzten.

Akordioaren arabera, kontratistak futbol-zelaia-aren proiektua eta lanak egin zituen eta Erandio klubak, trukean, 1,8 milioi pezeta gutxi gorabehera eta soberako lursaila eman zizkion eraikuntza enpresari, etxebizitzak eraiki zitzaizkion. Baina, aurretik txarto egindako lanek baldintzatu zuten proiektua. Lur-saila gehiago bete behar ez izateko, neurri bi hartu zituzten. Alde batetik, euskarri-egitura bat ipini zuten, lurra eta belarra azalean sostengatzeko; beste aldetik, «beharrezkoa izan zen hiru solairuko altuera daukan hormigo-egitura eta ezagutzea merezi duen izugarriko drainatze-instalazioa eraikitzea», Aurrekoetxearen berbetan. Hasierako proiektuak aurreikusitako leku gehiago sortzea: klubaren bulegoa, garai-kurren aretoa, bilera-gela, aldagela-etxolak eta abar, «baina diru faltak ezinezkoa egin zuen horiek gauzatzeko». Hala, 1967ko urriaren 13an inauguratu zen Ategorri berria. Garai hartan beste euskal taldeek inbidiaz begiratzen zioten belar naturaleko futbol-zelaia. Ezkerrak akordura ekarri duenez, «Ategorriko lanek luze jo zuten, halako obra bat ez baita besterik gabe egiten, baina azkenenean inaugurazioa ziragarria izan zen; behingoz zelai propio bat geneukan».

Dena den, lur-jausi garrantzitsu batek behartu zuen obra berriak egitera eta behin betiko inaugurazioa 1970eko urtarrilaren 11n egin zuten. Gaur egun, Erandio kirol-elkartea da Bizkaiko klub bakarra bere zelaiaren jabe dena. Ategorri txarto zahartu den ze-



MARINA GARCÍA
Klubeko presidentea

Ategorriko irtenbide modernoago bat topatu behar dugu: belar artifizialeko zelai bat izango litzateke konponbiderik onena.



TXELO EZKERRA
Luis Mari Zuazo presidentearen alarguna

Ategorriko lanek luze jo zuten, halako obra bat ez delako beste barik egiten; baina, azkenean, inaugurazioa ziragarria izan zen.



JOSEAN PÉREZ
Kirol-zinegotzia

Pozik gaude Ategorriren urteurrena dela eta; Udalak ez die kale egingo, baina, baliabide ekonomikoak eskasak dira, eta, beharrak, handiak.



TXETXU AURREKOETXEA
Ategorri berria eraiki zuen zuzendaritzakoa

Datorren denboraldian ospatuko da Erandio kirol-elkartea izan zuen lehenengo Ategorri futbol-zelaiaren mendeurrena, 2018. urtean.

laia da. Marina García presidentearen arabera, «Ategorri ez dago guztiz txarto, hemen jokatzeko segitzen dugu, baina diru asko erosten du mantenuan. Gure babesleei, bazkideei eta Udalarari esker aurrera segitzen dugu, kostata, baina irtenbide modernoago bat topatu behar dugu: belar artifizialeko zelai bat izango litzateke onena. Hala balitz, herriko umeak hona ekarri ahal izango genituzke, Arteagara bidali beharrean. Baina badakit inbertsio handia dela, diru asko balio duela. Horretan gabiltza lanean eta espero dugu apurka-apurka konpondu ahal izatea». Ategorriko belar artifiziala ipintzeak 300.000 bat euroko aurrekontua dauka. Bestalde, Erandio Kirol Elkarteko 15 taldek erabiltzen dute Arteaga udal-zelaia. Umeek autobusez joan behar dute haraino, horrek dakartzan gastuak eta trabak.

Kluba Ategorri udalekotzen ahaleginu da azken 15 urteotan, baina Udalak zama handiegia ikusten du. García uste du «gehienez jota bi-hiru urtera» konponbideren bat izango dutela, «daborduko denbora luzez gabiltzalako horrela». Ulertzen du, dena den, «gauden momentu ekonomikoak», eta konponbidea «kontuz» eman beharko dutela uste du. Josean Pérez Kirol zinegotziak ere arazo ekonomikoak azpimarratu ditu: «pozik gaude urteurrenagatik eta Udalak ez die kale egingo, baina baliabide ekonomikoak eskasak dira eta beharrak, oster, handiak, eurenak eta beste kirol-elkarteenak: Espainiako atletismo-txapeladunorde bat daukagu herrian, korridore batean entrenatzen! Lagundu nahi diet, baina oreka mantendu behar dut denak. Futbola ez da dagoen kirol bakarra», gogorarazi du zinegotziak. Erandio-ko Udalak Ategorriko argia, ura eta belarraren mantenuko zati bat ordaintzen ditu, ohiko diru-laguntza emateaz gainera. «Urteko ia 50.000 euro dira», nabarmendu du Pérezek. Dena den, «Udalak ez dio utziko konponbideren bat bilatzeari», azaldu du. ◀



Flashback

Erandio futbol-taldea, 1939-40 denboraldia

Ategorriko zuri-urдинen hamaikakoa duzue argazkikoa, 1939-40 denboraldian. 1918. urtean eraiki zuten Ategorri, futboleko belar-zelaia, Altzagako ibarrean; ingurua itxi ostean, berriro inauguratu zuten, 1921ean. Berton jokatu zuten Erandio Kirol Taldearen jokalariek 32 urtez. Bitarte horretan, barbarako Espainiako txapeldun izan zen Erandio, 1932-1933 denboraldian; edo berton hasi ziren futboleko gerora izen handiko izandako jokalar asko: Venancio, Garay, Zarra, Juan Ramón, Arketa, Ipiña, Garizurieta, Juanin, besteak beste. Gaur egun Ategorri beste leku batean badago ere, datorren urtean lehenengo zelai hura egin zutenetik 100 urte beteko direnez, ospakizunak antolatzen dihardu klubak.

Zutunik: Cecilio Zarra, Aldazabal, Luisón, Solatxi, Telmo Zarra, Recalde eta Cavia,
Makurtuta: Manolín, Terin, V. Aldazabal eta Trillo.



© TXETXU AURREKOETXEA URKIXOK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora

INMOBILIARIA GABAR GONIZ
SE VENDE
652 773 798

INMOBILIARIA GABAR
SE VENDE
652 773 198

BILBAINOS
GO HOME



TESTUA

Daniel de Miguel Avecilla

DOINUA

Ene gogoa hegan dijoa

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Honela izan ez dadin

Koka gaitezen Uribe Kostan,
eta ez da fikzioa,
herriak salgai daude benetan,
turismoa da zioa.
Bizilagunen lepora doa
gutxiren negoziario.
Fenomenoak izena dauka:
Turistifikazioa.

Nahiz eta beste batzuek esan
dela turismofobia,
auzokideak baztertua da,
sistema honen zoria.
Abariziak ustel lezake
eguneroko ogia.
Herri batentzat, herri bezala,
adreibuzko hilobia.

Etorkizuna ikusi gabe
aurrera goaz astiro.
Eszeptikoak izan gaitezen
bada hamaika motibo.
Hirigintzaren planek ematen
didate hainbat bertigo,
Artzentaletik Ondarruraino,
dena izango da Bilbo!

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua